

# ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

Herria ezagutzen



2. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA





# ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

Herria ezagutzen

LEHEN HEZKUNTZAKO

2.MAILAKO

IRAKASLEENTZAKO

GIDA PEDAGOGIKOA



## 2. UNITATEA: ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

### 1.- MARTIN ETA SANTXA(ANTSA) ERRALDOIAK.

Neolitikotik Erdi Arora jauzi handia ematen dugu historian eta aurreko unitatean erromatarren eragina herrian ez dugu aztertu, aztarnarik gelditu ez zirelako, baina bailaran eta Euskal Herrian izan zuten eragina ezaguna da. Nolanahi ere, arestian, arkeologo batek Garagartzako kobazulo galerian garai hartako aztarnak omen daudela aipatu du eta erromatar garaiko aztarnatzat ere jotzen ari omen da, arestian, Meazterreka auzoko San Balerio ermita ondoan, lurpetik 1804an Madrila eraman zen San Balerio buruzko inskripzioa.

Bigarren unitate didaktiko honetan hainbat gai jorratuko dugu Erdi Aroko eraikuntzen, bizimoduaren eta gertaeren inguruan, eta horretarako Martin eta Santxa (Antsa) erraldoiez baliatuko gara, iraganera bisita egiteko.

Haur gehienek ezagutuko dituzte, herriko jai guztietan plazan eta kaleetan zehar dantza egiten dute-eta. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Arrasateko historiaren zatia dira, Arrasateko erreketaren mendekuz Martin Bañez Artazubiagakoa Arrasatetik Garagartzako bidean, Ibarrateko burdinolaren kanpoaldean, oinaztar batzuek hil zutelako. Haren emaztea Santxa (Antsa Otxoa Ozaeta eta Marzaanakoa) zen eta negar ugari egin zuen heriotza horrengatik eta haren eresia ezaguna da.

Aurkezpena baliatu dezakegu erraldoien eta kilikien konpartsari buruzkoak lantzeko. Elkarrizketa sustatu dezakegu eta galderak egin ditzakegu, denon artean konpartsako kide guztien izenak jakiteko.

Arrasateko konpartsan bi erraldoi gehiago daude Gomez Gonzalez Butroekoa (Arrasateko erreketan hil zen oinaztarra) eta Elbira Leibakoa (haren emaztea) figureei dagozkienak dira eta kilikien izenak hauek dira: olagizona, indianoa, inkisidorea, artzaina, pirata eta pirata urdinarena dira. Konpartsako gainerako kideak hauek dira:

\*Olagizona.- Egungo errementariaren pareko pertsonaia. Kasta bat osatzen zuten. Zenbait handiki, hainbat olen jabe zen, herriaren zati handi batek beraientzat lan egiten zuten.

\*Indiano.- Pertsonaia honek bere lurraldetik alde egiten zuen, normalean Ameriketara, ondasun bila, lortu ere erdietsi zuten urruneko lurraldeetan, baina lortze horrek ez zion ematen ez sentiberatasunik, ezta kulturarik ere.

\*Inkisidorea.- Sorgin eta erlijio jazarpeneren babesean ideien aurkako zapalkuntza bortitza eraman zuten aurrera, egun, gazteen atzetik joaten da, eta puxikaz zigortzen ditu.



\*Artzaina.- Gure herriko pertsonaia, mendia eta izadia ondo ezagutzen dituen, mendi tontorrian eta bakartasunean poeta bukoliko, izengabekoa. Ardiekin egiten duen legez, umeei jarraitzen die.

\*Pirata urdina.- XVIII. mendea baino lehenagoko gure herriko pertsonaia tipikoa da, itsasoko beldur-ikara. Cadiz-tik irten eta bere itsas abenturak aurrera ateratzen zituen.

\*Pirata.- Arrasateko pirataren laguna, pertsonaia hauek beti lagunartean irteten ziren eta egundoko ondasunak eta prestigioa lortzen zuten.

Oso zaila denez ikasleek jakitea erraldoiak pertsonaia historikoak direla, komenigarria izango litzateke aspektu hori nabarmentzea: murgiltzera goazen garaiko pertsonak direla aipatzea eta zeintzuk diren azaltzea, unitate didaktikoa ireki aurretik.

**JARDUERA 1: Zergatik daukate izena Santxa eta Martin?**

**JARDUERA 2: Noiz ikusten dituzue erraldoi hauek kalean? Zer egiten dute kalean? Ba al dago beste erraldoirik?**

**JARDUERA 3: Ipini zure izena eta lagun batena, gura baduzu.**

*Koadernoko 3. orrialdea.*

## **2.- HERRIKO TXOKOAK ETA ARMARRIA EZAGUTZEN**

Bigarren unitate honetan hainbat gai proposatuko dizkizuegu: Erdi Aroko herri harresitua, herriaren osaera, meategiak, altzairua, Arrasateko erreketak, dragoiaren eta dokearen kondairak, lanbide zaharrak eta egungoak, Santamas jaiaren jatorria eta abar.

Aurreko unitatean neolito aroa landu genuen. Gogora ekar dezakegu aro horretako biztanleen aurretik nolakoa izan zen herria eta nortzuk izan ziren garai haietako biztanleak.

Arrasate inguruan erromatarren eraginaz aztarna gutxi jaso dira eta eskualdean bere kokapenarengatik, mesetatik gertu, soilik Atxorrotz eta Leintz Gatzaga aldean zerbait aurkitu zen garai horretakoak (txanponak...) eta Garagaratza auzoan aztertzen ari dira aztarna batzuk beraienak direlakoan. Baina ikusita, bertan erromatarrak izan zirela, ikasleei gogoratzeko ariketa proposatu diezaiekegu: Zer gertatu ote zen erromatarrekin? Gure artean gelditu ote ziren bizitzen edo mundua menderatzen jarraitu ote zuten?

Erromatarren ostean zeintzuk bizi ote ziren?

Zibilizazio bakoitzak bere aztarnak utzi ditu herrietan, eta Inperio erromatarraren erorketaren ondoren (476 k. o) 1492 urte arte, Historia liburuek diote Erdi Aroa dela eta aro horretan gure herrian hainbat gauza gertatu ziren eta oraindik ere zutik dirauten hainbat eraikuntza eta aztarna dago herrian.



Haiei esker aukera daukagu jakiteko edo irudikatzeko gure herria nolakoa zen eta bertan bizi zirenek zer nolako bizimodua zeukaten.

“Errementarien zalapartapean” unitate honen hasieran hainbat argazki eskaintzen dizkizuegu. Gehienak herrian daude eta herriaren historia zati bat dira, baina batzuk ez daude.

Hainbat aukera duzue jarduera hori egiteko: banaka egin dezakezue, talde txikietan, talde handian, etxekoen laguntza eskatuz ... zuen gustura.

**JARDUERA 1: Ikusgai dituzun argazkietatik, zeintzuk daude herrian?**

*Koadernoko 4. orrialdea.*

### **3.- ZER DAKIZU HORIEI BURUZ.**

Apartatu honetan agertzen diren argazkiak herrikoak zeintzuk diren aukeratu ondoren, horiei buruz zer dakiten biltzen saiatuko gara.

Ikasleei galdezka, saiatuko gara ahalik eta informazio zabalena jasotzen: non dagoen, zein izen duen, nortzuk egiten zuten, noiz egin zuten, zertarako, gaur egun zer erabilera duen...eta hortik abiatuta jarraitu dezakegu informazio gehiago biltzen: nolakoa ote zen herria garai hartan, zelan bizi ote ziren, zertaz bizi ziren, zelan janzten ote ziren, kaleak eta etxeak zelakoak ote ziren, zein langintza zeukaten... denon artean ahalik eta informazio gehien lortze aldera.

Lan hori taldean, banaka, edo ikastetxeko irakasleren baten laguntzarekin egin dezakegu. Jasotako informazioa koadernotxoan idatzi dezakete ikasleek edo horma-irudi bat osatu dezakegu denen artean bildutako informazioarekin.

**JARDUERA 1: Zer dakizu argazki horietan azaltzen denari buruz?**

*Koadernoko 4. orrialdea*

### **4.- HERRIKO ARMARRIA EZAGUTZEN.**

Herri guztiek bezala, Arrasatek bere armarrria dauka eta ia beti bezala armarrriaren zatiek herriaren xehetasun batzuek edo iraganaz hitz egiten dute.

Deskribapena hauxe da:

Goian, soro gorriaren gainean eta albotan bi haritz eta urrezko gaztelu bat. Urrezko kate batek lotzen du guztia. Azpian urrezko herensuge bat zelai berdean, urdin eta zilarrezko uhinen artean.



Udaletxeko fatxadan dago zizelkaturik armarría, herriko zaharrena dela ematen du eta frantses "rococo" estiloaren eragina du –apainketa gehiegi-. Fatxadan dagoen armarría Manuel Martín Carrerak egin zuen, udaletxea egin zuen arkitektoaren semeak, hain zuzen ere.

Juan Carlos Guerra arrasatear historiagile –heraldikagile ospetsua– zenaren iritziz, desagerturiko Santa Barbarako gaztelua izan daiteke, haritzak, Leintz–Ugaran bailarak sinbolizatuz. Herensugea, berriz, ipuin eta herriaren izena. Eta zuhaitzetatik zintzilik ikusten diren kateak, Navas de Tolosako borrokaldian arrasatearrek izan zuten parte hartzeari dagokie. Behealdeko uhinak bi errekek (Deba eta Aramaio) izan daitezke.

Hala ere, badago beste hipotesi bat dragoiaren ipuina adierazteko eta garai hartako testuinguru historikoarekin zerikusia duena gainera: Dragoia izan zitekeen, arrasatearrak zapaltzen zituzten jauntxoak; gazteluak, berriz, Santa Barbarakoa adierazteaz gain, Gaztelako erregearen nagusitasuna adieraziko luke.

Armarriaren leienda hauxe da:

*" Cuando Arrasate primero, por su leal y guerrero, llamó al Rey Mondragón, dónde nacen, dónde son, los hombres fuertes de acero; viva dragón inflamado, Monte y Castillo real, que se ganó en el Salado con las cadenas cercado del punto del Muradal".*

Egun, armari horren inguruan, erakunde ofizialek erabiltzen dituzten euskarrietan aldaketa batzuk proposatu dira eta Arrasateko Udalaren irudi korporatiboaren diseinuan, esate baterako, katerik gabe agertzen da armariaren edukia, aspalditik. Hemen ere katerik gabe marraztu dugu ezkutua, historikoki frogatzeke baitago arrasatearren parte hartzea Navas de Tolosako gerran eta kateen jatorria bera.

Hurrekin aztertu ditzakegu armariak dituen elementuak. Hipotesiak egin ditzakete zergatik agertzen ote diren elementu horiek eta zer lotura aurkitzen ote dioten gure herriarekin.

Nahi izanez gero, ezagutzen dituzten armarien gainean hitz egin dezakegu, ekartzeko eskatu, marrazteko. Gura beste sakon dezakegu.

**JARDUERA 1: Hona hemen gure herriaren armarría. Saiatu zaituz koadroan marrazten.**

**JARDUERA 2: Zein elementu azaltzen dira?**

*Koadernoko 4. orrialdea.*



## 5.- NAFARROA. LEINTZ BAILARA. ATXORROTZEKO TENENTZIA

Leintz bailara osoa Nafarroako Erresumaren baitan zegoen, Atxorrotzeko tenentziaren barruan, eta Gebaratarrak zituen gazteluzain.

Arrasate burdina-altzairuaren langintzan plaza garrantzitsua izan zen. Batetik, Udalatxeko minerala eta meategien kalitateagatik eta, bestetik, muga izaera zuelako.

1200. urtera arte Nafarroako erresuman zegoen, baina Gasteizko setioaren ostean, Nafarroaren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskualde batzuk Gaztelako Erresumak konkistatu zituen. Garai hartan, egun ezagutzen dugun Gipuzkoa ez zen existitzen eta bere lurraldean hiru entitate zeuden: "Aitzorrotzia", "Tierra de Ipuscaia" eta "San Sebastian". Bereganatze horretan Atxorrotz gaztelua eraitsi zuten eta historiagile batzuen arabera,- Iñaki Sagredo, Tomás Urzainqui- Arrasateko Santa Barbaran zegoen gaztelu nafarra eta Bergarako Elosukoa ere bai.

Jose Letona Arrieta arrasatear idazleak "Mondragon, sus calles" izeneko liburuan aipatzen du nola 1785. urtean Arrasatetik Historia-akademiara bidali zituztela hainbat idatzi, eta esaten zutela Arrasate 901. urteaz geroztik bazegoela eta Santxo Abarkak agindu zuela harresiz inguratzeko eta bere defentsarako Arrasateko gaztelua eraikitzeko. Halaber, aipatzen du Hiribilduaren aterik zaharrena, Zurgin kantoikoa, Santxo Abarka errege nafarraren garaikoa omen dela, nahiz eta arku horretan agertzen diren gazteluak eta lehoiak desagerturiko Olarteko atetik datozen.

Halaber, Esteban Garibaikoa historiagile arrasatearrak idatzitako "Memorias de Garibay" izeneko liburuan, Arrasateren inguruan zera dio: 966. urteaz geroztik bazela herri bat Arrasate izenarekin eta Calahorrako eta La Calzadako artzapezpikuak bere ardurapean zeuzkan hiri handien artean. Edozein modutan ere, garai hartako dokumentazio idatzirik ez dago, azkeneko urteotan hainbat ikertzailek zein idazle nafarrek aportatzen dihardutena baino ez.

Beste historiagile batzuek eta orain artean irakatsi duten historia ofizialak diote, Gipuzkoa bere borondatez entregatu zela Gaztelako Erresumara, baina garai hartako borondatezko entregak behin gazteluak botatakoan, nekez ulertu daitezke. Gainera, ez dago garai hartako dokumentu idatzirik eta ematen du Arrasateko historia hiri gutuna jaso zuenetik hasten dela.

Gaztelako Alfontso VIII. erregeak 1204. urtean hiltzerian zegoela bere testamentuan jasotzeko agindu zuen, berak Nafarroari bidegabeki konkistaturiko lurrak (Araba, Gipuzkoa, Durangaldea) itzultzeko Nafarroako erresumari, baldintza bakar bezala errege nafarrak bera eta bere semea ez erasotzea jarriz, baina osatu zenean, bertan behera gelditu ziren nahi horiek.

1260. urtera arte Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako auzo eta elizateez osaturiko unitatea zen. Behin Arrasatek hiri gutuna jasotakoan, bereizi egin zen





Leintz bailararen antolakuntzatik, eta geroago, 1331. urtean, zio berberarengatik Leintz Gatzaga.

Arrasate (1260.urtean) eta Gatzaga (1331.urtean) banandu ondoren, Leintz bailarako antolakuntza Aretxabaleta eta Eskoriatzara murriztuta gelditu zen, baina Arrasatek zein Gatzagak jarraitu zuten izaten beren eskubide komunalak (mendiak, zelaiak, errekek, pentzeak...) Leintz bailaran.

Irudian, bailarako hainbat mendi agertzen dira, Larragain-Kurtzetxiki-, Goikobalu (Santa Barbara), Udalatx, Murugain, Atxorrotz...ikasleei laguntza emateko Leintz bailarako herriak zeintzuk ziren asmatu ditzaten.

**JARDUERA: Zein lau herrik osatzen zuten Leintz bailara Nafarroako erresumaren baitan, 1200. urtea baino lehen?**

*Koadernoko 5. orrialdea.*

## 6.- HIRI GUTUNA

1260ko maiatzaren 15ean, Gaztelako erregeak hiri-gutuna eman zion herriari, Arrasate zen lekuari Mon (t)dragon izena jarri, San Esteban de Eznatorafe (San Esteban del Puerto) herrian. Izan ere, Nafarroako erregeak Gasteiz hiriari emandako forua berresten zuen hiri-gutunak. Hiri gutuna udaletxeko artxiboan dago gordeta.

Historia ofizialak hiri-gutuna ematean herriak sortu zirela adierazten duen arren, gauza nabaria da herri horiek aspaldidanik bizi zirela Nafarroako erresuman, baina garai hartan Gaztela 1200. urte aldera Gipuzkoa konkistatzen hasi zenean, XIII. eta XIV. mendeetan hainbat hiri berri "sortu" zituen. 1180-1237 urte bitartean portuak menderatzeko guran, Gaztelako erregeak hiri-gutuna eman zien, Hondarribia, Mutriku eta Zarautz herriei eta gero 1237-1268ko epean Gasteiztik itsasorako bidea zabaltzeko eta industria guneak zituztelako Tolosa, Ordizia, Segura, Arrasate eta Bergara herriei.

Herri gutuna emateak kasu honetan Gasteizko foruak berretsiz pribilegio multzo bat ematea suposatzen zuen:

- Gasteizko forua jasotzea.
- Burdinaren gaineko zergaren urteroko ordainketaz salbuetsita egotea.
- Toledo, Sevilla eta Murtzian izan ezik, portazgoaz salbuetsita egotea.
- Fuero, erabilera, ohitura, askatasun, frankezak, pribilegioak eta karten baieztapenak.
- Alkatea aukeratzeko aitortza, eta herri lurak era askean erabiltzeko aukera.

Halaber, herrian, antzinatek lantzen bazuten ere, 1262. urtean burdina lantzeko eskubidea jaso zuten erregearengandik eta baita hori egiteko beharrezkoak ziren ikatza eta egur guztia erabiltzeko ere.



Hainbat historialariren ustez, hiri-gutunak aukera ematen zion herriari, hiritar berria erakarri, nobleengandik urruntzeko eta harresi batez inguratutako hiri bat eraikitzeko eskubidea.

Arrasateri eman zioten hiri gutuna "lerrun gorenekoa" da eta bi eskribau eta 69 lekuko izan ziren.

Tomas Urzainqui historiagile nafarrak bere aldetik dio Arrasate lehendik existitzen zela hiri, villa, bezala eta San Millan de la Cogollako monasterioan 1080. urtean Leintz bailarari egin zitzaion donazio batean, bertan agertzen baita Arrasateretikiko erreferentzia "insuper tribuo in villa de Leniz". Leintz bailarako "villa " bakarra nolabait Arrasate zelako eta ageria denez, poblazio eta villa bezala herri gutuna jaso baino lehen existitzen zelako.

**JARDUERA 1: Topatu hizki zopan Gaztelako erregeak herriari ipini zion izena.**

**JARDUERA 2: Zein da?**

*Koadernoko 6. orrialdea.*

## 7.- HERRI HARRESITUA.

Herria oso modu planifikatuan joan zen garatzen, harresiz inguratzen. Ana Isabel Ugalde historiagile arrasatearrak adierazten duen moduan, harresia harrizkoa zen eta hirian 170 partzela egin zituzten, 170 familientzat pentsatuta eta harresiak babesa eman zion horri.

Kaleez eta karrikez aparte, harresien arteko espazioa orubeek betetzen zuten, hasieran tamaina berekoak, antza. Historialariek 12 m. luze eta 8 m. zabal zeukatela kalkulatu dute. Orubeotan etxebizitzak eraiki zituzten, hasieran bi solairu bakarrik zituztenak eta dirudienez XV. mendearen erdira arte zura izan zen materia nagusia.

Hiri berriaren lehen urteetan zailtasunak izan zituzten jende berria Arrasatera ekartzeko, baina 1262. urteko erreferentzia batean, betetzen hasi zela kontatzen dute. Geroago, harresietatik kanpo errebalak sortzen hasi ziren: Gazteluondo, Zarugalde eta Magdalena, azken hau handiena. Bertan San Lazaro eta Magdalenaren ospitalea egin zuten eta legendunak hartzen zituzten.

Unitate didaktikoan agertzen den marrazkia Arkeolan enpresak 1760-1850 urteko denboran (Aro modernoan) oinarritaturikoa da, baina baliatu gaitzke marrazki honetaz Erdi Aroan murgiltzen hasteko.



Meategien ustiakuntzari lotua zegoen herria, nekazaritzak zeukan garrantzia kendu barik eta hiribilduan zeuden lanbideak ahazteke. Horrek guztiak herriari etorkizun oparoa ematen zion.

Parrokia ikusten da marrazkian eta harresien barruan eraiki zuten parrokia, Atxon historiagilearen arabera San Juan parrokiaren lehenbiziko idatzizko aipamena 1318. urtean kokatzen du. Baina Arressateko(Arrasate) antzinako parrokia non zegoen harresiak egin baino lehen? Santa Marinari eskainitako adokazioa zuen Santa Marina de Agirre zen, Santa Marina baserria zegoen lekuan, hain juxtu ere.

Oraindik ere, horren guztiaren lekuko dira zutik dirauten hainbat eraikin eta kale zaharretako ate buruetan dauden armarrak zaharrak.

Horiek guztiak ekarri nahiko genituzke hona. Horretarako, aitzakia gisa, hiribilduaren grabatua eskaini nahi dizuegu.

Irudi horren behaketa egitea proposatu nahi dizugu. Erdi Arokoa izan arren, gaur egun identifikatzen errazak diren elementuak eskaintzen ditu. Baliteke gure ikasleetako bat bertan dauden etxe horietako batean bizitzea, edo hor bizi den norbait ezagutzea. Interesgarria izango litzateke horren inguruan jardutea.

Santxa(Antsa) eta Martin ere iritsi dira Erdi Aroa. Haien emandako azalpenak irakurri eta aztertu ondoren, jarduera egiteko prest izango ditugu ikasleak.

Jarduera burutu ondoren ikasleei eskatu diezaiekegu margotu dituzten elementuen inguruan azalpenak emateko: zer den, zergatik margotu duten, ba ote dakiten haren izena...

**JARDUERA 1: Margotu irudi honetan ezagutzen dituzun elementuak eta idatzi izenak.**

*Koadernoko 7. orrialdea.*

## **8.- HERRI HARRESITUA. BI ERREKEN ARTEKO HERRIA.**

8. eta 9. orrialdeetan jarri dizugun marrazkiak duen zehaztasuna egokia iruditu zaigu hurbilketa historikoa egiteko garai hartara. Beraz, marrazkia, batik bat, behatzeko eskaini nahi dizuegu, gaur egun ezagutzen dugu herrian antzinako Arrasate kokatzeko.

Arretaz erreparatuz, begi golpe batez bi erreken artean eraikitako herria dela ikusiko dugu. Goi partean, Leintz bailara zeharkatzen duen Deba erreka eta irudiaren behealdean Ugaran bailara zeharkatzen duen Aramaio erreka. Irudiaren ezkerrean goi partean Zaldibarko dorre historikoa ikusten da, garai hartako lekuko esanguratsu bezala eta Deba erreken aldamenen Arrasate burdinola izan zitekeena dago jasota. Marrazkiaren eskumako aldean Goikobaluko gaztelua, hainbat mendetan zutik Arrasateko bizitzaren erreferente bezala.



Harresiari erreparatuz gero, garbi ikusten da haren trazaketa, baita herrian sartzeko zeuden ateak ere, Zurgin kantoikoa, beheko atea.. eta baita erreka pasatzeko zeuden zubiak ere.

Marrazkian ikusten dira eraiki zituzten errebalak, eta Donostiara (Maalako errebaletik), Gasteiz (Gazteluondo errebaletik) eta Bilbora (Zarugalde errebaletik) joateko bideak nondik zihoazen.

Bestalde, marrazkian hainbat lanbide antzeman daitezke: nekazaritza, hiribilduko lanak, errementariak...

Behaketaren ondoren proposatzen den jarduera jolas baten antzekoa da. Marrazkia behatuz, Erdi Aroan gure herria nolakoa zen deskribatzea, alegia.

Garai hartako bizibidea lau eratan oinarritu zitekeen: batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza, meatokiak eta burdinolak.

Unitarte didaktikoaren 10.orrialdean herriak zuen itxurari buruz. horren guztiaren laburpena izan daitekeen lau testu eskaini dizkizuegu, behean proposatzen den jarduera egiteko. Hortaz, ondo legoke 8. eta 9.orrialdeetako marrazkiak behatzeko erabiltzeaz gain, 10.orrialdeko testua irakurtzea hobeto erantzuteko galdera **horri eta antzinako Arrasate irudikatzeko**.

### **JARDUERA 3: Nolakoa zen gure herria?**

*Koadernoko 8. 9. eta 10.orrialdeak.*

## **9.- HERRI HARRESITUA ETA GAZTELUA.**

Gipuzkoan hiribilduen sorrera XIII-XIV. mendeetan gertatu zen eta ofizialki Alfontso X Jakintsuak hiri-gutuna ematean herria harresiez babesteko agindua eman zuela aipatzen bada ere, hainbat historiagilek diote Antso "Abarka" (970etik 994ra Iruñeko erregea) izan zela orduko Arrasate herrixka harresiz babestea erabaki zuena. Halaber, Esteban Garibaikoa historiagileak Goikobaluko gaztelua eraikitzeke agindua eman zuena aipatu errege nafarra izan zela jaso zuen baina tamalez ez dago agindu horien idatzizko dokumentu historikorik..

Oraingoan harresi barruan geratu zen herriari erreparatuko diogu.

Garai hartan, oraindik suzko armarik ez zegoenez, harresi horiek bi metroko lodiera izaten zuten, eta Harresi aretoan ikusi dezakegu nolakoa zen harresia. Harresiak, gaitera almenak eta gezileihoak zituen harresiaren bira osoan egokiro banatuak. Herriak zituen sarrera eta etxeen ezaugarriez informazioa ematea interesgarri izan daiteke ikasleentzat, beraiek irudikatzeko hiribildua eta horrekin batera gertaturiko ezbeharrak azaletik bada ere, aipatzea interesgarri izango litzateke.



**Ateak.** Hiribilduaren sarrera ziren. Sei ate izan genituen herrian eta egun soilik hiru daude zutik.

- 1.- Iturriotzeko atea. 1795ean berritua. Zerkaosteta kalean.
- 2.- Portaloia edo Beheko Portala. Hiribilduko ate garrantzitsuena, berez Gazteluondoko arku da, 1768ko abuztuan egindakoa, 1780 ean hona pasatu zen, harriz harri desmuntatutakoa eta hemen zegoena Gazteluondon jarri zuten. Arano-Garcia maixu maistraren kalea eta Erdiko kalearen intersekzioa..
- 3.- Zurgin kantoiko atea edo "krimenaren kantoia", Monterron jauregiaren aurrean, bertan, 1816ko azaroaren 17an Monterroneko kondea, Santiago Elías de Aranguren hil zutelako. Hiribilduko aterik zaharrena da.
- 4.- Olarteko atea. Olarteko kantoia eta Olarteko kalearen intersekzioa zegoen. 1892an bota zuten edo desagertu zen. Marrazkiak gelditu dira jakiteko nolakoa zen.
- 5.- Gazteluondoko atea. Egun, Gazteluondoko eskola gunea dagoen lekuan zegoen. 1907an bota zuten. Nolakoa zen jakiteko argazkiak gelditu dira.
- 6.- Zerkaostetako atea. Arku bikoitza zuen ate honek eta Zerkaostetako kantoia eta Zerkaosteta kalearen intersekzioan zegoen. Arku txikia eta arku handia ziren, txikia pertsonak pasatzeko eta arku handitik zaldia, astoak, pasatzeko. XVIII. mendean egindako lamina batean jaso zen eta Benito Zumaldek egindako marrazki batean.

**Etxeak.** Zurezkoak ziren eta kaleetan zehar lerro berean eraikita zeuden. Sute handiak izan dira Arrasaten, suterik ezagunena 1448ko ekainaren 23koa baldin bada, Ferrerías kalean 1516 eta 1666. urteetan ere sute handiak izan ziren, Gorosabel historiagileak dio 1666. urtean kale horretan 14 etxe, non bizi ziren 28 familiak, erre ziren eta bota egin behar izan zituzten.

Beste sute handi bat 1489. urtean izan zen eta hortik aurrera debekatu egin zuten zurezko etxeak eraikitzea.

Kanpoaldeko etxeek harresi lana egiten zuten eta Aro modernora arte ez zuten onartzen etxe hauek kanpoaldera leihoak eta patioak izatea, harresiaren helburua defentsa egitea baitzen.

Informazio asko dago garai hartan herriak zuen itxurari buruz.

**Gaztelua.**- Santa Barbara (Goikobalu) mendixkaren aldean Gazteluondo izeneko kalea dago.

Izenak argi erakusten du esanahia: gaztelutik gertu dagoena. Eta galdera da zergatik jarri zioten kale honi Gazteluondo izena? Ba, antzina, Goikobalu aldean gaztelu bat zegoelako.

Berez, ez dago idatziz jasota noiz eraiki zuten eta nork agindu zuen gaztelu hori egitea, baina eraikitzeke agindua Antso "Abarka" eman zuela jasotzen du Auñamendi hiztegi entziklopedikoak eta Esteban Garibaikoa historialari arrasatearrak ziurtatu zuela hori berresten du. Gazteluak bi funtzio zeukan: Arrasate babestea eta Iruñeko erresumaren mugak defendatzea.



Gregorio Balparda historialariaren arabera "Malvecín" bezala ezaguna zen Goikobalukoa. Izen hori ageri da 1091, 1174 eta 1179 urteetako dokumentuetan, baina beste aditu batzuek diote izen hori Bilbo ondoko Malmasin mendixka gainekoa zela. 1200. urtean Gaztelak Gasteiz hiria garaitutakoan, Gipuzkoa bereganatu zuenean, Gaztelako Alfonso VIII erregeari entregaturiko ondasunen artean Rodrigo Jimenezek ez zuen aipatu Goikobaluko gotorlekua, Gipuzkoan konkistatutako gazteluen zerrendan. Berriz, oraintsuko Nafarroako historiagileen iritziz Atxorrotz (Eskoriatzakoa) Santa Barbara (Arrasatekoa) eta Elosuko (Bergara) gazteluak Nafarroako erresumaren defentsarako sarearen zatikoak ziren.

Enrike IV. erregeak 1457an agindu zuen gaztelua botatzea bi aitzakiatan oinarrituta, bata, herritarren nahiari kasu eginez eta bestea, gaztelu hartan "gaizkileak eta tiranoak" ezkutatu omen zirelako. Gaztelua botatzearen zioak historikoki ez daude kontrastatuta baina eraitsi zuten.

Garibaik gazteluaren aztarnak ezagutu zituen. Historiagilearen arabera, gotorleku handia zen, harrizko mendi eder batean zegoen eta oso zaila zen haraino iristea.

Gaur egun dauden arrastoei eta tokiari Santa Barbara ere esaten diegu, 1635. urtean Barbara Abarrategikoak Goikobalun ermita bat eraiki zuelako. Santa Barbarari eskainita zegoen ermita eta Santa Inesen zein Santa Gertrudisen irudiak zituen eta 1945. urtera arte Igozundearen egunean erromeria egiten zuten han.

Tolosako Batzarren dekretuak ermita botatzeko agindu zuen 1769an, baina herritarrek ez zuten gura izan eta 1771n Villafranca de Gaitango kondea alkate zela, bota barik itxi zuten. 1794an Konbentzio gerran artillero frantsesek eta gero Napoleonen artilleroek okupatu eta profanatu egin zuten eta betiko desagertu zen.

Gaur egun, herritarrek gazteluko dorreen oinarriak bisitatu ditzakete, Goikobalun bertan, 1994an aztarna horiek azalerratu baitzituzten. Egindako ikerketen arabera gazteluak lau dorre zirkular zeuzkan, bakoitzak 6 metroko diametroarekin eta dorre nagusi bat 30 metroko harresi laukizuzen batez babestuta.

Informazio asko dago garai hartan herriak zuen itxurari buruz. Guk, 10. orrialdean, horren guztiaren laburpena izan daitekeen lau testu eskaini dizkizuegu, lau argazki osaturikoa.

Helburua izango litzateke ikasleekin testu horiek lantzea eta, gero, egiten dituzten galderei erantzutea.

*Bandoen arteko guden erasoetatik eta lapurretatik babesteko harresiz inguratu zuten hiribildua. Hiribilduak forma obalatu (almendra) dauka.*

*Hiribilduaren barnealdera sartzeko sei ate zeuden: Portaloiko atea, Zurgin kantoikoa, Kontzesinokoa eta desagertuta dauden Gazteluondoko, Olarteko eta Zerkaostetakoa. Ate horiek gauero itxi eta*



*goizero zabaltzen zituzten eta sute kasuan itxi egiten zituzten, bertako biztanleek sua itzaltzen lagundu zezaten.*

*Hasiera batean herriak hiru kale zeuzkan: Erdiko kalea, Ferrerias (Arozkale) eta Iturriotz. Geroago, herria handitu egin zenez, harresitik kanpo errebalak eraikitzen hasi ziren, Zarugalde, Gazteluondo eta Maalakoak.*

*Herria polita zen. Garai hartan Hiribilduaren barruan parrokia erakitzen hasi ziren, hainbat dorretxe zeuden eta lurra eta eraikitzeko erabiltzen zen materiala harrizko harlanduzkoa zen. Gaur egun Santa Barbara ezagutzen dugun tokian(Goikobalu) gaztelu bat zegoen.*

*Bi erreken artean eraikitako herria zen Arrasate eta Aramaio errekatik hiribildura pasatzeko hainbat zubi zeuden.*

*Muga izaerako hiribildua zen Arrasatekoa, muga herria zelako, Bizkaia, Araba, (meseta ) eta itsasoaren bidearen tartean zegoelako.*

*Harresietatik kanpo, Santa Marina eliza zegoen, hiri- gutuna eman zenetik baino lehenagotik gaur egun ezagutzen ditugun Aldai, Obenerreka, Makatzena tokietan.*

**JARDUERA 1: Irakurri arretaz testua eta erantzun galderak.**

**JARDUERA 2: Proposatzen den jarduera hau egiteko, komeni da pixka bat aritzea herriko maparekin. Horretarako, herriko plano eskuratu beharko genuke: kale plano izan liteke edo toponimiako mapa. Lehenik eta behin, ikasleentzat ezagunak diren lekuak mapan kokatu ditzakegu: beraien etxea, ikastetxea, aitajaun-amandreen etxea, kirol instalazioak, parrokia....**

**Kontuan izanik ikasleen bistara mapa konplexua izan daitekeela, auzoa aurkitzen, bereizten eta kokatzen hasi beharko genuke. Hortik abiatuta, kaleen izenei erreparatu geniezaieke, puntu erreferentzialetan (errekak, errepideak, autopista, eta abar).**

*Koadernoko 10.orrialdean.*

## **10.- HERRIA OSATZEN**

1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herrixkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga ( parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

la 93 urte pasata zeuden erregeak Arrasateri hiri-gutuna eman zionetik eta aitortzen zitzaizkion "pribilegioak" erakargarri egiten zitzaizkien Ugaraneko herrixkei eta tokiei. Garai nahasiak ziren, kontratuaren atal batean islatzen zen moduan:



*"Vivimos en servidumbre..con los males e daños e hurtos e robos e fuerzas...que recibimos de los Ricos Homes e Caballeros..poderosos que viven e entran en la dicha tierra e comarca" Por nos salvar e defender de los dichos males e robos...conocemos e otorgamos que entramos por vecinos dela dicha villa de Mondragon"*

Izan ere, esan daiteke herrixka eta toki hauen bizilagunek ondasunen eta pertsonen jurisdikzioa ematen ziotela kontzejuari herriko babesa eta auzotar estatusaren truke. Horrek berarekin alkatearen autoritatearekiko menpekotasuna zekarren, zergak ordaindu beharra eta diru zigorra, auzotartasun horri egunen batean uko eginez gero. Halaber, horrek herrixken eta tokien azalaren mugak aitortzen zituen eta baita herriko lurrak zein mendiak guztiek erabiltzeko eskubidea ere.

*"Pecheros e pechemos todos e cada uno de nos e nuestros fijos e herederos e todos los otros que moraren en los dichos lugares(...) con vos el dicho concejo(...) en todos los pechos e dineros e pedidos del rey"*

Auzotartasun kontratu hau San Juan Batzatzaillearen parrokian sinatu zen 1353ko otsailaren 17an Alfonso Lopez Altzibarrekoa eta Antso Martinez Urrupainekoa Arrasateko alkateen aurrean, elkarrekin bilduta kontzeju erara, aipatu herrixka eta toki horietako hainbat "homes-buenos"ekin, ohitura zen legez, "pregoilariaren pregoian".

UGARAN bailara Gesalibartik Uribarri auzoraino doan bailara da, Aramaio erreka egiten duena hain zuzen ere, ezker aldean eta eskumako aldean Muru eta Udalatxeko mendien maldak daude. Ia 600 urte geroago, 1966. urtean, berriz, Arrasate handitu egin zen, Foru Aldundiak erabakita Bedoña auzoa atxiki zitzaion Arrasateri.

Ariketa moduan ikasleei proposatu diezaiekegu hausnartzea gaurko Arrasate udalerriko azalerari buruz, 1353. urtean atxiki zitzaizkion "auzoen" azalera kentzea garai hartan Arrasate zelakoa zen irudikatzeko. Eskuko mapa bat hartuta edo Arrasateko toponimia mapa zabaldu eta arbelean jarriz gero, ikusiko genuke zelakoa izango zen Arrasate herriaren azalera.

Ariketa honekin jarraituz, Bedoña auzoaren azalera kentzea irudikatu dezakegu ( 1966.urtean atxikitu zitzaion Arrasateri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabaki baten bidez) eta horrela alderatzea lehengo eta gaurko Arrasate.

**JARDUERA: Hutsuneak hizkiekin betetzen badituzu, Ugaran bailara mugatzen duten bi mendien izenak eta zeharkatzen duen erreka izena aurkituko dituzu.**

*Koadernoko 11. orrialdea.*





## 11.- MEATEGIAK

Arrasateko meatzeetako mearen ugaritasunaren eta kalitatearen ondorioz, XIII. mendetik altzairugintza eta hura merkaturatzea izan da Arrasateko herritarren jardun nagusia.

Burdina lantzeko ezagutza eta usadioa antzinatik zegoen zabaldua, eta antzinatik izan da garrantzi handiko industria Arrasaterentzat.

Hauek ziren gure udalerriko meatokirik garrantzitsuenak: Lastaobia, Jaunporobia, Kirixaobia, Lurgorri, Barrenobia, Pisaobia, Sendaobia, Errealobia..

Udalatxeko mearen kalitatea handia zen, Udalatxeko maldetan langileek minerala ateratzen zuten aitzurrekin, pikoekin edo beste erreminta batzuekin. Indusketak jeneralean azalekoak ziren eta oso gutxitan ibiltzen ziren lurpeko galerietan.

Material hori arrokatik atera ondoren, aldapan behera botatzen zuten, gurdiak edota mandoak zeuden lekuetara. Handik oletara garraiatzen zuten. Ola (burdinola masukerak) ia bakoitzean maistru bat eta bizpahiru laguntzaile aritzen ziren.

Lehengaiaz gain, bi erreka emaritsu zituen gurgil hidraulikoak mugitzeko, baso ugari ikatza ekoizteko eta jende trebea burdina lantzen; horrela, bada, Arrasateko meatzaritzak eta metalurgia industriak sekulako aroa ezagutu zuten.

Arrasatek XVI. mendearen hasieran 1.900 biztanle zeukan eta Donostiaren atzetik Gipuzkoako komertzio bolumen handiena zuen eta probintziako bigarren handiena, biztanleen aldetik zen ia %70 inguruk lan egiten baitzuen altzairugintzan eta jarduera horrekin zerikusia zuten ogibideetan.

Baserriak hemen ez zuen etekin askorik ematen, nahiz eta garrantzitsua zen. Beraz, arrasatearrek burdina landu eta Araba aldera eramaten zuten, eta handik garia, ardoa, artoa edota olioia ekartzen zituzten.

Hiru kintal (138´12 kg) meaz kintal bat (46´04 kg) burdin lortzen zen.

**Benakeroek** Udalatx mendi hegaletan zeuden meatzeetako mea ateratzen zuten. Meatze ondoko auzoetan bizi ziren eta batean baserriko lanean eta bestean meatzeetako mea ateratzen ibiltzen ziren.

Herrian izan dugun gremiorik zaharrena sortu zuten; San Balerioko benakeroen Kofradiaren 1434ko ordenantzak dira horren lekuko.

### **Ikatz barik ezin ezer egin**

Burdinoletarako erregaia, mea ikatzaz nahasten zuten eta labeetan urtzetik burdina lortzen zuten.

Tona bat burdina ateratzeko, bi tona ikatz eta lau tona egur erabiltzen zuten.



**Ikazkinek** haritz eta pago egurrezko ikatza egiteko kono formatoko egur meta egiten zuten (txondorra).Txondorra ezartzeko leku egokia bilatu, hura egin eta ikatza egiteko, hamabost egun behar ziren batez beste, tamainaren arabera.

Astero eramaten zuten ikatza burdinoletara eta ikazkina familiarekin batera joan ohi zen, ikatza emateko epeak betetzeko eta burdinola ez geratzeko.

**Arrasateko altzairuaren sekretua mearen kalitatean eta egiteko prozesuan zegoen.**

Olagizon/olandre arrasatearrek prozedura bat erabili zuten, eta haren bidez Europako altzairu onenetako bihurtu zuten Udalatzeko mea.

“Hasta las mugeres”..Garai hartako burdingintzan emakumeak parte hartze aktiboa zuten eta esanguratsua da auzi batean irten zen esamoldea hori adierazteko. Auzi horretan Juan Ochoa de Avendañok azaltzen zuten herri osoak parte hartzen zuela meategi eta burdinolen kontratazioan eta tratuan, eta tratu horretan parte hartzen zuten hitzez hitz “hasta las mugeres”.

Esamolde horrek argi erakusten du Euskal Herriko eta Arrasateko arlo ekonomikoetan **emakumeak zeukan partizipazioa** handia zela eta Jose Antonio Azpiatzuk idatzirik “El acero de Mondragon en la época de Garibay” izeneko liburuan hala jasotzen da, emakumeen jarduerari nolabaiteko aitortza historikoa emanez. Behin ezkonduetakoan, emakumeak burdingintzako lanetan aktiboki parte hartzen zuten. Normala zen produkzio jarduerari loturiko lanak egitea eta kasu askotan emakume alargunak hildako senarraren negozioaz arduratu eta kudeatzen zuten. Azpimarragarria ere bada, emakume libreen (ezkongabeak) parte hartzea langintza honetan eta jasotzen du emakume batzuk burdinolen jabeak zirela, meategiekiko eskubideak zituztela eta interes horiek defendatzeko auzietan parte hartzen zutela.

**JARDUERA 1: Argazkiari behatu ostean, esango al zenuke zein auzotan zeuden meategi hauek?**

**JARDUERA 2: Ordenatu hitz hauek eta meategiei buruz gehiago jakingo duzu.**

*Koadernoko 12.orrialdea.*

## 12.- “ARRAIA”. ALTZAIRUA.-

Altzairua ekoizteko bi prozesu egiten ziren.:

### 1. Burdin meatik arraiara

**Masukerak** izeneko burdinola batzuetan egiten zen prozesua. Mea eta egur ikatza txandaka jarritako geruzez, piztu labea eta 1.200/1.300 graduko tenperatura hartu arte. Prozesuan ordu gutxi eman eta gero, arraia likidoa tantaka hasten zen eta plaka edo barretan solido bihurtzen zen gero.

Arrasaten lau izan ziren garrantzitsuenak: Ibarreta, Zubiarte, Zalgibar eta Legarra, baina guztira zazpi izan ziren garai hartan.

Burdinola horietan lan egiten zuten ofizialak masakeroak deitzen zituzten eta masakero maisuen gremioan zeuden, 1455eko Ordenantzek frogatzen dutenaren arabera.



## 2.-. Arraiatik altzairu araztura


Lan hori burdinoletan egiten zen, burdinola hidraulikoetan, baina txikiagoetan. **Tiradera** izeneko instalazio horiek masukeretan egindako arraia jasotzen zuten eta araztu egiten zuten, altzairu araztuaren benetako propietateak ateratzeko. Altzairu barrak lortu eta gero, oraindik ere gori zeudela, tenplatu egiten zituzten, errekako uretan sartuta.

Oraingo Olarte kalea dagoen tokian eta herriko errebaletan biltzen ziren. Horietan lan egiten zuten ofizialak tenazeroak ziren eta Santa Luzia kofradian zeuden.

- a) Mineraletik (meatik) arraia bihurtzeko. 1200/1300 graduko tenperatura (Koadroetan datoz sekuentziak)



- b) Arraiatik altzairua egiteko.- 1200/1300 graduko tenperatura



Burdinola handietan, masukeretan, 50-60 langile mugiarazten zituzten, besteak beste: teknikariak, hauspolariak, garraiolariak..

Olatxoetako maisuek teknika oso garatuak erabiltzen zituzten. Espainiako erregearentzat Arrasateko industria armagintza oso garrantzitsua izan zen. Horregatik, Aranguren abizeneko ordezkari bat bidali zuen Arrasatera mende batzuk lehenagoko teknikak errekerperatu zitzaiz. Baina ez zuen lortu altzairu bikain hura leheneratzea.

Espainiako monarkia ez zen interesa agertu zuen bakarra: Frantziatik, Ingalaterratik eta Flandestik ere etorri ziren, hemengo olagizon/andre nagusiek erabiltzen zituzten teknikak ezagutzeko.

Baina olagizonek ez zuten eman gura sekretu profesional hura ezagutzera. Frantses batzuk hasi ziren lanean bertoko oletan, antza, sekretua Frantziara eramateko. Baina bertokoez ez zieten sekretua argitu. Sekretua belaunaldiz belaunaldi transmititu zen.

Hemen egindako ezpatak Gaztela, Amerika eta European barrena zabaldu ziren. Baina ez zuten "ekoizten" produktuek, merkatuaren arabera ekoizten zuten. Arrasatear batzuek Sevillara, Ameriketara bidaiatzen zuten eta itzultzerakoan azaltzen zuten leku haietan zer behar zeuden. Arrasateetik ekoiztutakoaren zati handi bat Altzolako erreka barruko portuaren bidez garraiatzen zen produktuak itsasoratzeko.



Espainiako merkaturik handiena Toledokoa zen eta han saltzen ziren Arrasateko altzairuz egindako ezpatak. Garestiak eta preziatuak.

"Garai hartan Arrasateko altzairua Milangoarekin parekatzen zen. Milangoa Europako onena omen zen". Bada, Esteban Garibaikoa historialariak ziurtatu zuen "Arrasatekoa Milangoa baino hobea" zela, ondorengo arrazoia emanez:

*" Milangoari forma bat eman ondoren, ezin zitzaion beste forma bat eman. Arrasatekoa, ordea, lauzpabost aldiz aldatu zitekeen, eta hala ere altzairuak ez zuen indarra galtzen, badirudi hemengoak zeukan karbonoagatik edo".*

Armagintzari dagokionez, suzko armentzako piezak eta piketerako puntak ekoiztu ziren eta Espainiako armadari hornitu zioten. Ezaguna zen munduan esaldi hau: "**Vencedora espada de Mondragon tu acero y en Toledo templada**".

-Industriaren gainbehera.-

XVI. mendetik aurrera eta, batez ere, XVII. mendean industria honen krisialdi handia gertatu zen, hainbat arrazoiengatik: krisi demografikoa, Suediako altzairuaren komertzializazioa, bertakoa baino merkeagoa zelako, itsasoan izandako porrotengatik merkatuaren eskariaren beherakada eta Arrasaten, mineral falta nabaria zelako. Arrasateko 4 burdinola masukeretatik hiru zeuden lanaldi erdiz lanean eta Ibarretakoa itxita zegoen. XVIII. mendearen lehendabiziko erdian nolabaiteko errekonferazio ekonomikoa eman bazen ere, 1750. urte inguruan geldiezinezko gainbehera aroa hasi zen, hainbat arrazoiengatik:

- Nazioarteko merkatuetan lehia galerarengatik.
- Produktzio sistema zaharkitua erabiltzeagatik.
- Produktuaren garestitzeagatik.
- Mineral eskasiarengatik.

XIX. mendearen erdi aldean burdinolak desagertzen joan ziren, Europan hasten ari zen makina iraultzaren mesedetan eta 1841. urtetik aurrera (aduanak lekuzaldatzea itsas ertzera) hainbat gizarte aldaketengatik eman zirelako.

Burdinolak hasi ziren bihurtzen tailer eta, gero, lantegi.

### **13.- OLAK, BURDINOLAK ETA ERROTAK**

Olak antzinako lantegiak ziren minerala landu eta burdina lortzen zutenak.

Burdin mineral, egur eta ur korrante ugari izanik, Euskal Herrian (batez ere, isurialde atlantikoan) burdina lantzeko ezagutza eta usadioa antzinatek zegoen zabaldua, eta garrantzi handiko industria izan da bertako ekonomian. Hasieran, mendian eta eskuz egiten zen lan, baina XIV-XV mendeetako aurrerakuntza teknikoei esker, ibarrera jaitsi ziren olatako gizonak, auspo eta mailutzarra mugitzeko uraren indarrak baliatzearen. Bi burdinola mota bereizten ziren:



Zeharrolak ( masukerak) edo handiak (12-15 arroako totxoak urtzen zirenekoak)  
 Tiraderak edo txikiak (5 arroa inguruko totxoak urtzen zirenekoak)

Euskal burdinolek XVI. mendean izan zuten beren garairik onena (armadaren beharrak, Ameriketako koloniek, ontzigintzak... eraginda). Baina XVIII. mendetik aurrera gainbehera gogorra izan zuten, ingeles eta suediarren gailentasun teknikoa eta garapen ekonomikoa zirela medio.

### ERROTAK

Alea ehotzeko tresna, harri higigaitz batez eta haizeak edo urak birarazten duen beste harri batez osatua. Garia eta artoa ehotzeko helburuarekin, asko izan ziren Euskal Herriko ibai eta erreka bazterretan eraikitako errotak.

Deba ibaia eta Aramaio errekaen bazterretan, asko izan dira mendeetan egindako errota eta burdinolak. Egun denok ezagutzen ditugun lantegi erraldoiak dauden ertzetan, aspaldi, sei burdinola handi eta 70 burdinola tiradera egon ziren, haien artean, oraingo Olarte kalea dagoen bezalako tokian eraikitako olatxoak edo tailerrak.

### ARRASATEN IZANDAKO BURDINOLA ETA ERROTA BATZUK

<b>DEBA IBAIAN</b>	
BOLIÑATE ERROTA	1589-1965. ULGOR eraikitzeko bota zuten.
LEGARRA BURDINOLA	Arrasaten eraikitako handienetakoa. 1967an desagertu zen industrialdea eraikitzeko.
ZUBIATE BURDINOLA	1739an desagertua.
OSIÑAGA	1914. urtera arte.
ZIGORROLAZPIKUA ERROTA	1901ean bota zuten, gero Union Cerrajera izango zen Cerrajería Guipuzcoana eraikitzeko.
OLATXO BURDINOLA	Aurretik burdinola izan bazen ere, 1868an martinete bezala ezagutzen zuten. 1910ean desagertua.
KATAIDE BURDINOLA	Altzairua lantzeko martinetea. 1596rako eraikita zegoen.
<b>ARAMAIO ERREKA</b>	
ARGIERROTA	Gesalibar
AUZOERROTA	1893-1971 urte bitartean
IGERIBARBARRI (ERROTAZAR)	1891n sortua
MADARIAGAERROTA (LEETE)	1940. urtera arte.
KOBATEERROTA	1884-1950 urte bitartean
GOIKOERROTA	1606an sortua.
BEHEKO ERROTA – BABILONIA – MURRI	1606 –1929 urte bitartean
BARRENATXO	1920. urtean itxi zuten, baina zutik dirau eta zaharberritzeko eskaera aspaldidanik dago



IBARRETAKO ERROTA ETA BURDINOLA	1450-1968 urte bitartean
TXURISENA AUZOERROTA	1969an bota zuten
ARRASATEERROTA	Burdinola izandakoa, 1967an bota zuten.
ASPOROZA - MUNAR	1739an desagertu zen.
MEATZERREKAERROTA	1450erako bazegoen.
ASKASIBAR	1739an desagertua.
SOLOETXE ZURRATEGIA	1764-1915 urte bitartean
ARRIZAPATA BURDINOLA	1739an desagertua.
ZABALA – OLAOSTE – SAN AGUSTIN	Errota.

**\*1535. URTEKO ERROLDAN AGERTZEN DIREN ERROTEN ETA BURDINOLEN KOKAPENA ETA AIPAMENAK.**

ERROTAK	BURDINOLAK
Zigorrola (Musakola)	Legarra (Zalgibar)
Legarra (Zalgibar)	Zubiate (Zalgibar)
Osinaga (Zalgibar)	Zaldibar (Zalgibar)
Muzibar (San Andres)	Arrasate (Erdigunea)
Boliñate (San Andres)	Ibarreta (Uribarri)
Arrizapata (Meatzerreka)	Igeribar (Uribarri)
Askasibar (Meatzerreka)	Etxebarria (Garagartza)
Asporoza (Munar)	Babilonia (Garagartza)
Oleaga (Uribarri)	

Behar bada ikasleren batek ezagutzen du burdinolen bat, Legazpiko Mirandaola, adibidez. Horrela bada, han ikusitakoa azaltzeko eskatuko diogu. Gero, olaren elementuen zerrenda bat proposatuko diogu. Hala ere, elementu guztiek ez dute zerikusia olekin. Zeintzuk ote?

**JARDUERA 1: Ezabatu burdinolari ez dagozkion hitzak**  
Koadernoko 13.orrialdea.

**14.- FERRERIAS KALEA.**

Arrasateko kalerik zaharrenetakoa da Ferrerias kalea. Beheko Portaloian hasten da eta Gazteluondo alderaino iristen da. Egun, Beheko Portaloian dagoen arkua Gazteluondoko atean zegoena da.

Esteban Garibaikoa historiagileak jaso zuen oraingo Ferrerias kaleari garai hartan Arozkaletan esaten ziotela. (Errementarien kalea).

Bi sute handi gertatu ziren kalean 1516an eta 1666an. Gorosabel historiagileak dio 1666. urtean kalean 14 etxe erre zirela, non 28 familia bizi ziren eta sutea gerarazteko etxe asko eraitsi behar zen.



Portaloitik gertu Juan Carlos Guerra arrasatearrak, Euskal Herriko heraldika arloan aditurik garrantzitsuenetakoak lorategi harresidun oinetxea zuen. Herriko harresien ertz horretan "Mugaibe dorretzarra" zegoen eta bertan oinetxe hori zegoen. 1973ko abuztuan bota zuten, etxebizitzak egiteko.

Kalearen erdi aldean Barrutia-Mendia y Gabiriatarren oinetxea dago eta etxearen sarreran agertzen da haien armarria.

Kale honetan eta gaur Olarte kale moduan ezagutzen dugun eremuan, Arrasateko altzairugintza, XVI. mendean, bere punturik gorenean zegoenean burdinola txiki, tiraderak, ugari zeuden. Garai horretan, 60 edo 70 izatera iritsi ziren. Tiraderak burdinola txikiak ziren, labe txiki bat zeukaten eta gurpil hidraulikoek mugitzen zuten hauspoez eta batzuetan eskuz eta beste batzuetan gurpil hidraulikoek mugiarazitako forjako mailu batez.

Tiradera horietan burdinola handietan (masukereetan) ateratako "arraia" purifikatzeko lantzen zuten, gero kalitate handiko altzairua ateratzeko eta barrak gori-gori zeudenean erreka uretan sartzen zituzten, geroago berriro mailuaz kolpatzeko.

Tiradera haietan lan egiten zuten ofizialak tenazeroak ziren eta trebetasun handia zuten beren ogibidea garatzeko.

**JARDUERA 1: Ferrerias kalea non hasten da? Non bukatzen da? Zergatik dauka izen hori? Eta Olarte kaleak zein esanahi izan dezake? Eskatu informazioa, eta erantzun banaka edo taldeka.**

*Koadernoko 14. orrialdea.*

## **15.- ERREMENTARI DANTZA.**

Arrasateko historian eta kondairan oinarritzen da: Herensugearen kondairan, altzairugintzako elementuetan (sua, mailua, errementaria...), eta dantzan parte hartzen dute 1993az geroztik dantza taldeek, kilikien eta erraldioen konpartsakoek, albokariak, bertsolariak, gaiteroak, musika bandak, herritarrek eta alkateak.

San Juan jaien bezperan dantzatzen dute. Jose Ramon Vitoriak eginiko musikak garrantzi handia du dantza honetan, behin eta berriz errementarien mailuan hotsa imitatzen baitu, izugarrizko indarra emanez ekitaldi guztiari. Kantaren bertsoak Jon Iñaki Izarzelaiak arrasatearrak egin zituen.

Kalejiran Zaldibarko pilotalekutik irteten dira. Kanean zehar buelta batzuk eman ondoren, herriko plazara sartzen dira, eta eskumatik ezkerrean dantzariak zirkunferentzi bat osatzen dute. Une horretan, txalaparta eta tobera entzuten dira, dantzariak kokatu ondoren musikariak isildu egiten dira, eta txalapartak eta toberak jotzen jarraitzen dute. Horren ostean, alkateak herensugea agurtzen du eta zortzikoa dantzatzen du, txirula eta



ttuntun soinuek lagunduta. Azkenik, espartinak kendu eta sutara botatzen ditu, aspaldiko usadioari jarraituz. Gero, herensugeak sua pizten du, eta horrela jaiak hasten dira. Suaren inguruan "ingurutxo" eta "polka" bat dantzatu ostean, kalejiran irteten dute guztiek plazatik.

Dantza bukatu ostean, segizioan doan herensugeak bere hatsarekin San Juan sua pizten du, gero herritarrek sugarren gainetik jauzi egin dezaten.

**JARDUERA 1: Bete itzazu hutsuneak alboan dituzun hitzekin. Zein jaietan abestu eta dantzatzen da?**

*Koadernoko 15. orrialdea.*

## **16.- HERENSUGEAREN KONDAIRA.**

Antzina ba omen zegoen Murugain izeneko mendian Arrasate herria uxatzen zuen herensuge bat. Abere erraldoi horrek zerga bat ezarria omen zien arrasatearrei: urtero herriko neskaren bat ematea jateko.

Eta noizean behin, urtero-urtero, Mandoin izeneko mendi magaletik neskatoaren bila jaisten zen. Oraindik ere hau esaten da: Arrasateko gurutzegunetik Olandixora, eta Mandoin eta Untzillako bideak, bere buztankaden bidez zabaldutakoak direla.

Beraz, arrasatearrok herensugearekin topo ez egitearren neskato bat lagatzen zioten, Txozagorri izeneko aldapan hartu eta jan zezan.

Baina urteak igaro ahala, herritarrek aspertzen ari ziren gehiegikeria hartaz, eta erabakiren bat hartu behar zutela zioten. Inguruko herritar bati bururatu zitzaion ideiarik azkarrena: argizarizko neskato bat egitea, gero herensugeari emateko.

Bada, herensugearen urteroko eguna etorri zenean, Txozagorri jarri zioten neskatoa, baina orain argizarizkoa. Herensugeak ez zion antzeman eta berehalaxe hasi zen jaten. Bere ikaragarritzko ahoa mugitzen hasi zenean argizaria urtzen hasi zitzaion, eta hortzeginak eransten zitzaizkion. Orduan, ezkutatuta zeuden zenbait herritarrek (errementariak) burdinoletan gori-gori jarritako burdin eztenak hartu eta aberearen gorputzean sartu zituzten. Herensugearen garrasiak itzelezkoak izan ziren. Handik laster hil zen, eta harrez gero, pozik bizi izan ziren arrasatearrek, Herriak ospatu zuen hori eta herriari-tokiari Mont(e) (del) dragón izena jarri zioten"

Arrasate izena, hiri-gutunaren bidez, erregeak erromanizatutakoan, garai hartako aldaketari funtsa, zentzua, emateko eta jendeak bereganatu zezan, garai ilun haietan mundu osoan egiten zen moduan, litekeena da kondaira bat sortu izana.

Izan ere, Erdi Aroko garai ilun haietan jakintza elizaren eskutan zegoenean eta Erregearen boterea handia zenean, Europako herri askotan herensugearen kondaira ugari ezagutzen





dugu, herensugearen presentzia armarrietan eta banderetan sarri lotuz garai hartako abentura zalduneriarekin. Gainera, ezaguna da herensugearen presentzia munduaren azaleratik aspalditik desagertuta zegoela baina legendak egiteko asko erabiltzen zen. Kondaira horretan, garai hartako arrasatearren langintzarik nagusiena-errementariak, arotzak-, herriaren izenarekin loturiko bi kontzeptu-mon(te) zein dragon eta arrasatearren ausardia jasotzen dira, ziur asko jendeak hobeto bereganatzeko. Nolanahi ere, kondaira iruditeria kolektiboan gelditu da.

**JARDUERA.1: Unitate didaktikoaren gida didaktikoaz baliaturik, kondaira irakurriko du irakasleak.**

**JARDUERA 2: Hemen duzun hieroglifoa ebatziz gero, 126otik aurrera gure herriari nola esaten zioten asmatuko duzu. (Erne! gaztelaniazko hitzak elkartu behar dituzu).**

*Koadernoko 16.orrialdean.*

## **17.- ARRASATEKO ERREKETA**

Guraia (oñaztarrak) eta Bañez (ganboarrak) leinuen arteko borroketan gertaturiko ekintza historikoa da.

Garai hartan, Oñatiko jauntxoak- Pedro Belez Gebarakoa-ganboar alderdiko pertsonaiarik eraginkorrenetakoa zen eta Leintz bailara osoan agintzen zuen, Arrasaten izan ezik. Haren lurraldeko mugak gure herriaren harresietaraino iristen ziren. Adibidez, Zaldibarko eta Musakolako hainbat lur Oñatiko kondearenak ziren eta Zaldibarren dorretxe bat zeukan.

Oñatiko jauntxoak Enrike II. erregeari eskatu zion Arrasatearen gaineko jabetza eta arrasatearrak horretaz jakitun, erregeari eskatu zioten eskaera hori kontuan ez izatea eta gonbidatu zuten Arrasatera etortzeko. Bisita horretarako Zubillaga auzotik Bakueren ondotik Arrasateko Osinaga baserrira doan erregebidea egin zuten. Itxura denez, bisita hau ez zen Oñatiko jauntxoaren gustukoa.

1426ko abuztuan, Arrasateko oinaztarrak Lope Otxoa Orokoaren agintean Zaldibarko dorretxea eta ondoan zeuden errota zein burdinola eraitsi zituzten.

Gertaera honengatik, 13 arrasatearrek heriotz zigorra jaso zuten eta erregeak agindu zien Arrasatekoei 2000 urrezko florin ordaintzea Oñatiko kondeari eta dorretxea eraikitzea baina epaia ez zen bete. Geroago, 1429. urtean enkausatuen barkamena lortzeko Arrasateko kontzejua Oñatiko jauntxoarekin akordio batera iritsi zen, termino hauetan:a) Dorretxea lehen zegoen tokian eraikiko zela b) Kontzejuak ez zuela egingo ezain eraikinik dorretxetik gertu, c) Oñatiko jaunari 2000 florin kontzejuak ordaindu beharko ziola eta 3000 florin erregearen ordezkariari eta d) Oñati, Lenitz eta Mondragonen arteko mugarriak jartzea egingo zela.



Herriaren barruko bizimodua ez zen batere lasaia izango oinaztarrak eta ganboarrak batzuen eta besteekiko mendeetako gorroto errotuan hazten baitziren. Oinaztarren alderdiko nagusia Gomez Gonzalez Butroekoa genuen, Bizkaian berebiziko eragina zuen eta baita Aramaioko lurretan ere. Esaten dute hiribilduan oinaztarrak gehiago zirela ganboarrak baino, kopuruz.

Ematen duenez, erreketak gertatu baino lehen, ganboarrek 1446ko otsailaren gan jo zuten Gaztelako erregearengana, Aramaioko jauntxoari zioten beldurra agertzeko eta irtenbideren bat emateko.

Gertaeraren hastapen gertua hamabi egun lehenago, ekainaren 11an, kokatu behar da, gurayarrek deituta Gomez Gonzalez Butroekoa bere gizonekin azaldu baitzen Arrasatera, herria hartzeko asmoarekin. Bañeztarrak ez ziren koldartu eta abisua helarazi zioten Oñatiko Pedro Velez Gebarakoari. Hura, bere bandoko aliatuen indarrak bildu ondoren, bere gizonekin ailegatu zen Arrasatera, baina ordurako Gomez Gonzalez Butroekoa harresiez barrualdean zegoen, erasoari aurre egiteko prest eta, gainera, badaezpada ere mezulariak bidali zizkien Gipuzkoako aliatuei, laguntzen etorri zitezzen. Egun horretan, hiribilduaren kanpoaldean, bi bandoen arteko borroka izan zen.

Oso zaila da jakitea zenbat pertsonak borrokatu zuten egun haietan, baina Jose Maria Uranga historiagile arrasatearrak dio mila eta bostehun zirela oinaztarrak eta bi mila eta bostehun ganboarrak. Jose Angel Achon-ek bere "A voz de Concejo" liburuan dioen bezala, Juan Carlos Guerra arrasatearrak gertaera hartako 820 partaideren izenak bildu zituen. 767 ganboatarrak ziren, 48 oinaztarrak eta gainerako bostei ez zaie alderdi inplikaziorik ematen. Ganboatarren multzo horretatik, Arabatik 23 zetozen, Gipuzkoatik 402 (Oñati,(54) Asteasu (2),Azkoitia (99), Zestoa (20), Elgoibar (42), Elgeta (75), Azpeitia (1), Mondragon (61), Errezil (13), Gatzaga ( 28), Zarautz (6) eta Bizkaitik 335.

Hamabi egun geroago, 1448ko ekainaren 23an, hiribildua inguratuta zegoen arren, barrukoek ezelako ahulezi zantzurik azaltzen ez zutelako, ganboarrek San Kristobaleko basilizan bilduta, erabakia hartu zuten: Herria lau aldeetatik erreko zuten. Garaiko arrasatear gizarteko jende ezagunak eta erantzukizunekoak hartu zuten erabakia (Lope Fernandez Osinagakoa, Rodrigo Fernandez Osinagakoa, Rodrigo Abendañokoa, Juan Martinez Artazubiagakoa, Ochoa Bañez Artazubiagakoa,....).

Egileak Martin Otxoa Araotzkoa, Otxote Atxagakoa, Juan Bergarakoa eta Juan Ortiz Elejaldekoa Elgetakoa izan ziren

Hiribilduko eraikinen egitura zurezkoa zen eta garrek lan erraza izan zuten hiribildu osoak suak hartu zuelako. Garibaikoak dienez bi etxe bakarrik salbatu ziren sute hartatik eta eliza ere erre egin zen" con sus organos, campanas, reloj y retablos y ornamentos", ikaragarria izan zen herria zelan gelditu zen eta erreketak bukatzean, ganboarrak sartu ziren hiribildura etxe guztietan triskantzak eta ahal zutena arpilatu zuten.



Hiribilduan zeudenek suari nola aurre egin ez zekitela, kanpora ateratzea erabaki zuten. Aramaio aldeko atean, Zarugaldeko errebalearan barrukoek noiz irtengo zain, Abendaño jauntxoa zegoenez, beheko Portaloitik ihes egitea pentsatu zuten inguratuek. Bergararik bere laguntzan zetozen gipuzkoar errefortzuei Maalako elizaren inguruetan itxarotea deliberatu zuen Gomez Gonzalez buruzagiak. Eta bere laguntzaile zen Lope Unzuetakoa eibartarrari, une batetik bestera harresietatik bestaldera irteteko abisua emango zuela adierazi zion.

Aldaiko aldapetan, ordea, ganboar alderdiko Martin Ruiz Olasoakoa zegoen zein Gonzalezen alabaz maiteminduta zegoen. Honek mutil bati idatzi sekretu bat eman zion Gonzalezen emateko adieraziz bera irtenez gero utzi egin ziola pasatzen. Alabaina, Lopez Unzuetakoa geldiarazi zuen eta bera Gonzalez zela esandakoan, ezagutu zuen idatziaren edukia eta bera abiatu zen Aldairantz eta ganboarrek erasotzeke pasatzen utzi zioten Gonzalez zelakoan.

Geroago, Gomez Gonzalez Butroekoak pentsatuz Lopez Unzuetakoa tropen zein gipuzkoar tropen laguntza eta Ruiz Olasoren konplizitatea izango zituela bere soldaduekin irten zen hiribildutik, baina hiru frontetan eraso zuten eta Maalako errebalearan hil zuten ganboarrek Gomez Gonzalez Butroekoa, bere semea Juan Gonzalez eta Persebal Muxikakoa, Juan Alonso Muxikakoa, Mujika eta Aramaioko Juan Alonso jaunaren semea. Oinaztar asko hil zen eta asko preso hartu zituzten.

Arrasateko erreketak eragin handia izan zuen Euskal Herrian eta Penintsulan. Garai hartako Gipuzkoako merinoak ebazpen hauek (sententziak) 1448ko abenduaren 18an, Tolosan eman zituen:

\*Artazubiaga leinuko 7 zaldun arrasatear, lau suemaileak eta Oñatiko jauntxoa sutan bizirik hiltzera kondenatu zituzten.

\* Guztira 300 bat pertsonak, heriotza zigorra jaso zuten, batzuk uretan, harriekin lotuta, itota hiltzeko eta beste batzuk urkatuta hiltzeko. Hala ere, erabakia ez zen ezarri.

\*Gomez Gonzalez Butroekoaren tartekoei (4. graduan) aukera eman zieten bando horretako sendiak hiltzeko, eta horregatik ezelako zigorrik ez jasotzeko.

\*1451an eta 1470an, erreketan egindako kalteak konpontzeko eta kalte ordainketa gisa, Belez Gebarakoa Oñatiko kondeak Arrasaten zeuzkan jabego guztiak (Zaldibar, Hidalgo basoa, Musakolako hainbat lur) kontzejuari saltzea erabaki zuten erregeek. 300.000 marabedietan finkatu zuten kontratua baina a Arrasatek 50.000 marabedi ordaindu zuen.

\*Gaztelako Errege Katolikoek 1490. urtean Bañeztarren eta Guraiatarren leinuak desegin zituzten, eta leinuen arteko borrokak bukatu ziren.



Bando bateko eta besteko kantak izan ziren eta horiek Iburguen-Cachopinen kronikan jasota daude. Erreketaren gertaerak Lope Garcia de Salazar oinaztarrak (Gudan Gonzalez Butroekoa hildakoaren koinatua) jaso zituen eta baita Fray Diego de Ayala. Urte bat geroago, 1533. urtean, Esteban Garibaikoak bere "Memorias" liburuan jaso zuen.

Kantu oñaztarra

<p>Gal didila Unzueta ta Bergara Zaldibarrek bere partea debala, Aramayo suac erre dazala ta sumintza Juan laz Gurayarra; zerren zeuren Jauna ez zenkan enpara</p>	<p>Que se pierdan Unzueta y Vergara, Que tenga lo suyo los de Zaldivar, Que el fuego queme Aramayona Y atormente a "Juan Laz" el de Guraya Porque no defendió a su señor</p>
--	--

Kantu ganboarra.

<p>Gomez andia zanarren An zan, Preserbal bere, Bay Joanikote bere Madalenaan an ey dautza viola, tronpeta bague</p> <p>Gomizek asko lagunik Zabal arabaarrik Guipuz hondo ederrik, Bizkaitar urduri gogoric. Ez diazo bakarric ze andaz Presebal ilik, Juanikotegaz lagunduric, chibiluen ospe baguerik, Ez urrun maloguenik</p> <p>Argui yzarrak urten dau zeruan goyan ostanzean Bergararrok asi dira Traixoe baten azmazean, Euron artean dioela. "Erre dezagu Mondragoe, Lasterreon joan gayteza" cantoeco zarzayqueran, Aen bizarrac icara zirean Armakaz ezin eguien legez ezer</p> <p>Ganboarrocc su emaytean Asi dira ta onegaz</p>	<p>Aunque Gomez era grande Y llevaba con él a Preserbal Y también a Juanicote, Allí yacen en Magdalena Sin viola ni trompeta</p> <p>Gómez con muchos compañeros Fornidos alaveses Gipuzkoanos bien plantados Vizcaínos inquietos y duros No está sólo, Ya que allí está muerto Preserbal Acompañado de Juanikote Sin música de flautas No lejos de Magdalena</p> <p>Ha salido la estrella luminosa En lo alto del cielo mientras Los bergareses han comenzado A tramar una traición, Diciendo entre ellos ¡quememos Mondragón; vayamos de prisa a la entrada del cantón y que tiemblen sus barbas porque con las armas no tienen nada que hacer</p> <p>Los gamboinos dando fuego Han comenzado, y así</p>
--	---



<p>Urten daude beralan          Oneztar barruangoak,          Zeiñ erre ez zitezán,          Gomiz Gonsaluh bertan zan,          Beregaz Presebalen kaltean          Joanicoc eta beste ascoc          Eudela parte bertan.</p> <p>Oiñ arrok zituan luma          Ozaetako jaun gasteak          Laster baten igaro zan          Uraz alde bestean.          Ama bereak esakusan:          -Semea, ¿zer dok orrelan?          - Zaurietan kuradu eta          Ama, nagozu oera.</p> <p>Egun bein ur jarruta          Gamboar seme lasterra ,          Ara bere lasterrago          Abendañuje motela,          Eskerrik asko emaiten deusat          Andra Santa Maiñari;          Bera axeizat sartu eta          Etxera bidaldu nau ni</p>	<p>Han salido inmediatamente          Los oñacinos del interior          Para no quemarse,          Gomez Gonzalez estaba allí          Y con él para su desgracia Presebal          Juanikote y otros muchos          Que estaban en el lugar</p> <p>Los orgullosos pies del joven Ozaeta          Eran como plumas          En una carrera llegó          Al otro lado del agua.          Su madre le dijo:          -Hijo ¿ Qué tienes así?          -Curame las heridas.          Madre, y llévame a la cama.</p> <p>Hoy persigue de muy cerca          El veloz hijo gamboino,          Más rápido que él aún          Abendañito el tartamudo.          Muchas gracias le doy          A la Señora Santa Marina;          Me hizo entrar en su iglesia          Y a casa me mandaba</p>
--	---

Urte batzuk geroago gertaera honen mendeku gisa, beste gertaera bat izan zen oñaztar eta ganboatarren artean.

Ibarreta azpi baserria zegoen tokian, Uribarri eta Garagartza auzoak elkartzen dituen lursailetan gertaturiko ekintza historikoa, 1464ko maiatzaren egun batean. Egun, hil zuten tokian bi gurutze jarrita daude gertaera haren oroigarri, Antsa Ozaetakoak eginiko eresiarekin("endetxarekin").

1976. urtera arte izan ziren gurutzeak toki horretan baina errepide zabaltzerakoan hortik kendu zituzten.

1985.urtean gurutzeak berriztatutakoan, berriro , handik gertu jarri ziren.

Martin Bañez Artazubiagaoak eta Juan Ibañez Barrutiakoa Ibarretan zuten burdinolara joan ziren. Kanpoaldean eta noiz irtengo zain, Aramaioko bost oñaztar zeuden helburu batekin: Arrasateko sutearen erruduntzat zituzten Martin eta Juan hiltzea.



Irten zirenean, Aramaiokoak gainera etorri zitzaizkien eta alferrik izan ziren oihuak eta indarkeriak, hil egin zituztelako bertan Martin eta Juan.

Bi gurutze tosken behealdean jarritako testua hauxe zen:

MARTIN BAÑEZ DE ARTAZUBIAGA- JUAN IBAÑEZ DE BARRUTIA.

OÑETAKO LUR AU JABILT ICARA

LAU ARAGUIOK BEREAN BERALA

MARTIN BAÑES IBARRETAN IL DALA

ARTUKO DOT ESCU BATEAN GUECIA

BESTEAN SUZI IRAXEGUIA

ERRECODOT ARAMAYO GUCTIA

SANTXA DE OZAETA 1464 MAYATZA

Gertaera horren inguruan hausnarketa egitea proposatzen dugu bi zio aipatzen: garai hartako bi bandoen artean zegoen lehiaren ondorioz, bitan zegoen zatitua herria eta bando batek beren herriari sua ematearen erabakia. Oraingo gizartearekin posible al da alderatzea?

Ekintza gogorra zen baina herriaren historia pasarte da, kantu horietan ondo jaso dira eta gertaera horren sua, ekainaren 23 batean gertatua, jaietako San Juan suarekin alderatzea iradokitzen dugu. Egun hartako sua gerrak eragindakoa eta jai bezperako suak, harmoniak eta alaitasunak eragindakoa erkatzea, hain zuzen ere.

**JARDUERA 1: Ba al dakizue zer ospatzen den ekainaren 23an?**

**JARDUERA 1: Azaldu San Juan bezperan, jaietan, zer ekintza egiten dituzten.**

**JARDUERA 2: Zein duzu gogokoen?**

*Koadernoko 17.orrialdea.*

## **18. OINAZTARRAK ETA GANBOARRAK.**

Ertaroaren bukaeran leinuen arteko gerrak edo bandoen arteko borrokak eman ziren Euskal Herrian. XIII.mendean hasi ziren, Gaztelak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa konkistatutakoan, eta gero Nafarroan. Hiru liskar mota ematen ziren: Nobleza nekazarien aurkakoa, nobleza herrien "villen " aurkakoa eta nobleen artekoa.

Azken mota honetakoak da beraz, bando gerretan izandakoa. Gaztelako Koroaren pean zeuden herrialdeetako landa lurretako nobleak bi leinuaren inguruan bildu ziren, batzuk, Ganboa leinuaren inguruan eta besteak Oinaz leinuaren inguruan. Horrela sortu ziren bi bandoak: ganboarrak eta onaztar bandoak, hain zuzen ere, eta Nafarroan, agramondarrean eta beaumontarren artekoa.



Leinuek bere baitan odol loturen bidezko komunitate handi bat osatzen zuten eta ahaide nagusiak zeuden jerarkia horretan beren ondasun eta aberastasunekin. Ahaide hauei ertaroko gizarteko beste partaide batzuk gehitzen ziren: enkomendadoak (prestazio ekonomikoak eta lana eskaitzen zuten segurtasunaren truke), atreguadoak (modu pertsonalean engaiatzen dira ahaideekin, babesaren truke) eta enkartadoak zein etzandakoak (bigarren txiroak), hauek tropako soldaduak ziren eta jana eta alojamenduaren truke egiten zuten beraien lana.

Bando desberdinen leinuen familia batzuk hauek izan ziren:

\* Ganboarrak.- Ganboa, Balda, Olaso, Banez, Iraeta, Jaolaza, Atxega, Salazar, Abendaño eta Gebara familiak. Aliatu gisa, agramondarrak eta Nafarroako erresuma zuten.

\* Oñazarrak.- Oñaz, Lazkano, Beraztegui, Arriarean, Yarza, Guraia, Muxika eta Butron. Aliatu gisa. Beamondarrak eta Gazteleko koroa zuten.

Hainbat liburutan jaso da banderizoen gerren kronika eta ondoen jaso duena Lope Garcia de Salazarrek 1471.urtean eginiko "las Bienandancas e Fortunas" izeneko liburuan

Borroka hauen helburua errenten mantenuan eta estatus sozialena zeuden aurre egiteko "villen" garapen eta oldarrari. Borrokak egiten zitzuten jakiteko *nork balio zuen gehiago lurrean eta jakiteko zein zen handiagoa edo gehiago eta gehiago agindu.*

Bandoen arteko aurkotasuna "villen" barruan islatu zen, bertan zeuden ahaideek udalak gobernatzeko bando bereko familiek borroka egin baizuten.

Herriak nekazaritza noblezatik defendatzen ziren "Hermandadeak" sortzen, geroago Junta Orokorren eta Diputazioen enbrioi izango zirenak probintzia sortzeko.. "Villa" hauen aliatua Gaztelako Koroa zen.

Egoera gatazkatsu hau gainditzeko aliantza asko egin ziren eta horrek ekarri zuen ahaide nagusien hondamendia beraien tropen disoluzioa eta beraien dorren etxeen eraitsi eta desmotzatzea..

1490. urtean Errege-erregina katolikoek leinuen abolizioa gauzatzeko agindua eman zuten.

Leintz bailara osoa, 1200ean, Gaztelako konkista aurretik, Nafarroako Erresumaren baitan zegoen, Atxorrotzeko tenentziaren barruan, eta Gebaratarrak zituen gazteluzain. Lau herri osatzen zuten bailara Arrasatek 4 parrokiekin, Aretxabaletak 6ekin, Eskoriatzak 6ekin eta Salinas-Gatzaga 2 parrokiekin. Gaztelako erregeak Arrasateari 1260.ean, Mondragon izenarekin eta Salinas 1331.urtean hiri-gutunak eman zizkioten, Leintz moduan Aretxabaleta eta Eskoriatza geldituz. Lur hau bere juridisiotzat hartzen zuen Gebara



Oñatiko kondeak eta harrezkero liskar ugari izan ziren Leintzeko fijosdaldgoen, Oñatiko Kondearen eta Mondragon villakoen artean muga, ondasun eta larreengatik. 1353an Arrasateari atxiki zitzaizkion Ugaran bailarako hainbat parrokia eta toki.

1370ean Gaztelako erregeak Leintzeko jurisdizioa ematen dio Oñatiko jaunari eta hau denborarekin liskar iturri izan zen lurralde horretan.

Arrasaten bi alderdi zeuden Guraia (Oñaztarrak) eta Bañez (ganboarrak) baina herritik gertu Aramaioko jauna ere bazegoen eta eragin handia zuen Leintzen eta Durangon .

#### **\*Urrexola garaiko borroka**

1458ean Enrike IVk agindu zuen Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaleta anaikidetzea Gipuzkoarekin. Alabaina, Oñatiko kondearen oposiozagatik, agindu hau ez zen gauzatu 1497 arte.

Izan ere, Lenitzek denbora tarte honetan liskar ugari izan zuten Oñatiko kondearekin mugen, larreen eta abarren ingurukoak eta armen bidez konpontzea erabaki zuten . Bi bandoen arteko kontuak xuritzeko hitzordua Urrexola Garai mendixkan jarri zuten.

Oñatiko bandoaren aldetik Pedro de Garibay eta Juan Ibañez de Elazarraga, bere lengusua joan zen eta leintzen aldetik, Galartzako mayorazgokoa eta bi anaia gehiago. Hiru hauek eta Oñatikoa zauritua gertatu zen eta egun gutxi barru hil zen. Gontzalo de Galartza "zaharra" bere hiru semeen heriotzez jakitean eta Pedro de Garibay ere zaurituta gertatua zela, asebetuta geldituko zela aipatu zuen baldin eta Pedro de Garibay ere hilko bazen.

### **19.- PERTSONAIK.**

Erdi Aroko garaia garrantzitsua izan zen Arrasaterentzat eta bi arlotan kokatu ditugu pertsonaia garrantzitsuak; batean, Garibaikoa historiagile zen neurrian, garai hartako idazkari eta lekuko moduan eta, bestean, Arrasateko erreketarekin lotura dituzten hiru pertsona, gaur egun betikotuak daudenak kilikien eta erraldoien konpartsan, hain zuzen ere, gertaera historiko haren etengabeko lekukoak bezala. Baina hemen ez dira agertzen, mende hauek guztietan herria bizirik mantentzeko eta ekintzaile izan direnak, hau da, emakume eta gizon arrasatearrak, anonimoak baina pertsonaia hauek bezain beharrezkoak.

\* ESTEBAN GARIBAIKOA. Gipuzkoar historialari eta errege kronikaria (Arrasate, 1533 - Madril, 1599). Arrasateko alkatea izan zen. Espainiako erregearen kronikari izendatu zuten. Obra ugari idatzi zuen, gehienak gaztelaniaz, eta euskaraz, euskal esaeren bilduma bat idatzi zuen.

\*MARTIN BAÑEZ ARTAZUBIAGAKOA. Bedoñan bizi ziren Artazubiagako Bañeztarrek beren dorretxeari su eman behar izan zioten, Oñatiko Kondearen menpean ez jartzeko. Horregatik, Arrasate hiribildura jaitsi ziren eta Iturriotz kalean bere oinetxea eraiki zuten. Arrasateko





erreketa gertatu eta gero, urte batzuk geroago, 1464ko maiatzean, mendeku gisa, hil zuten oinaztarrek, Ibarreta burdinola aldean.

\*ANTSA OTXOA OZAETA ETA MARZAANAKOA. Martin Bañezen alarguna, negar ugari egin zuen heriotza harengatik; oso ezaguna da hari eskainitako hileta kantua.

\*GOMEZ GONZALEZ BUTROEKOA. 1448ko ekainaren 23an, Arrasateko erreketan Maalako errebalean hil zuten Aramaio Guraia leinuaren oinaztarra. Arrasateko erreketaren inguruan egin ziren bi bandoetako kantuetan azaltzen da bere heriotzaren kronika, modu epiko eta tragikoan.

**JARDUERA 1: Saia zaitez gurutzegrama osatzen, irudietako eta esaldietako pertsonen abizenekin.**

*Koadernoko 18. orrialdea.*

## 20.- SANTAMASAK

Unitate didaktikoan agertzen den bezala, antzina, 1351az geroztik, Meatzerrekan (Veneras) ospatzen zuten Santamas eguneko feria, meategien ondoan. 1727ko urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek despoblaturan egiten ziren feria guztiak aurrerantzean despoblaturari zegokion herrian egin behar zirela erabaki zuten eta harrezkero Portaloi aldean hasi ziren egiten feria eta 1926. urtetik aurrera Uarkapen.

Antzina Santamasetako feriak hiru egun irauten zuen, hots, abenduaren 21etik 23ra bitartean. Bigarren egunean erromeria handia antolatzen zuten eta 1957. urtera arte herriko lantegiek jai zeukaten abenduaren 22ko arratsaldean, eta hortik aurrera egun osoan.

Ematen du jai galtzen joan zela eta joan den mendeko 60ko eta 70ko hamarkadaren erdira bitartean ez zutela ospatzen. 1974an eta 1975an herriko kuadrila batzuen partaideek Portaloi aldean baserrietan lan egiteko lanabes batzuk jarri zituzten erakusteko eta saltzeko, baina 1976. urtea izan zen gaur ezagutzen dugun Santamas jaiaren hasiera eta abiapuntua; harrez gero, hainbat kuadrila, auzoetako elkarteetako kideak eta kultura taldeetako partaideak elkartu ziren Santamas jai bereskuratzeko asmoz eta Santamas komisiñue sortu zuten.

Berez, baserriak XVI. mendetik aurrera sortzen joan ziren eta lehenago hiribildutik kanpo, eremuan zeuden etxeek landuko zituzten barazkiak eta ganaduak.

Historian zehar, baserri asko errentan izan dira, maizterrak izan dira, hain zuzen ere, eta azkeneko mendeetan behintzat esaten dute, urtea bukatzeaz zegoenean, baserriarrentzat



beren produktuen (barazkiak, ganadua, elaboratuak) salmentarekin ateratzen zuten dirua baserriaren jabeari ordaintzeko erabiltzen zela.

Egun, jai honen egitarauaren barruan, azokak, herri kirolak, joaldunak, txerriaren erakusketa eta zozketa, ganadu feria, pilota partiduak, herri bazkaria, bertsolariak, dantzaldiak, trikitilariak, gaiteroak, erraldoiak eta kilikiak... eta dantzak izaten dira. Dantzarik ezagunena, duela urte gutxi egindakoa eta plazan dantzatzen dutena, txerri dantza da; letrak Jon Iñaki Isarzelaia eta musika Jose Ramon Vitoria arrasatearrek egin dituzte.

Bigarren jardueran kantaren letra osatu eta gero, ikasle guztiek batera kantatzea proposatzen dugu. Ikasleren batek jakingo balu dantzatzen, dantzatu dezala edo irakasleak oinarritzko urratsak ezagutzuz gero, denon aurrean egin dezala proposatzen dugu, datozen urteei begira ikasleengan dantza grina hori sortzeko.

**JARDUERA 1: Arrasaten zein egunetan ospatzen dugu Santamas jaia?**

**JARDUERA 2: Deskriba itzazu egun horretan kalean zer gauza edo ikuskizun ikusten dituzun.**

**JARDUERA 3: Santamas jaietan dantzatzen dugu TXERRI DANTZA. Osatu hutsuneak eta gero abestu. Hauek dira jarri beharreko hitzak.**

*Koadernoko 19. orrialdea.*

## 21.- DOKE JOKOA.

“ Oñatiko kondeak (ganboarra) jabego ugari zeukan Arrasaten: Zalgibarko dorretxea, errotak, soroak, mendiak... Eta bere jabegoa ziurtatzeko urtero etortzen zen Zaldigar inguruko sorora belar pixka t bat moztera bere jabegoa zela adierazi nahian. Zeremonia horrek sutan jartzen zituen arrasatearrak, burlatzat hartzen baitzuten. Zer egin eta Zaldibarko soroa dema baten bidez eskuratzea bururatu zitzairen arrasatearrei, doke jokoaren bidez. Eta horrela kondeari irabazi zioten soroa, Arrasateko herrira itzultzeko”.

Hori da gure egunetara iritsi den kondaira, baina hainbat historiagilek diote Arrasateko erreketaren ostean, Gaztelako erregeak Oñatiko kondeari jarritako zigor neurrien artean kalte ordainketa eta barkamen gisa, kokatzen dute Zaldibarko lursailen jabetza. 1470-11-22an, salerosketa kontratuan 300.000 marabeditan finkatzen zen Arrasatek Pedro Velez Gebarakoa Oñatiko kondeari ordaindu behar ziona, herrian kondeak zeuzkan jabego guztien truke (Zaldibarren, Hidalgo basoa, Musakolako hainbat lur ..) . Arrasate erosi zizkion baina 50.000 marabedi ordainduz. Hortaz, jokuaren bidez, Zaldibarreko jabegoak ez zirela irabazi gauza nabarmena da , baina kondaira hau gugana iritsi da eta “Herensugaren kondaira”rekin gertatu den bezala eta gure iruditeria kolektiboan gelditu da.



Nolanahi ere, eta anekdota gisa aipatzea, Zaldibarko frontoia eraiki zen arte (1900.urtean) udaleko kideak, urtarrilaren 1ean, meza nagusia entzundakoan, bertara joaten ziren. Alkateak bere eskuekin belarra moztzen zuen baina honek ez zeukan doke jokuarekin zerikusirik.

Antzeko jokoak Leintz Gatzagan egiten da, "lauko"izenekoa.

Unitate didaktikoan antzinako joko honen arauak jaso ditugu eta ikasleei irakurritakoan, proposatzen dugu aukera baldin badago edo jokatzeko. Berez, marrak egitea ez da arazoa, kontua da txanponak edo fitxak izatea eta ahal bada lurrian egitea aukera, labana sartzeko. Ikastetxearen kanpoaldean lurrezko sailak egonez gero, proposatzen dugu bertan egitea edo Hiribilduari egingo zaion bisitan, Kondekuaren lursailetan jokatzeko, egubakoitz santuan bezala.

Gaurko egunean, antzinako ohiturari jarraituz, udal ordezkariak eta herritarrak Monterron jauregi ingurura joaten dira Egubakoitz Santuan dokean jokatzera.

**JARDUERA 1: Erreparatu egiezu jokoaren arauak (kontrazalean) eta jolatu zure gelakideekin.**

*Koadernoko 20.orrialdea.*

## **22.- ERDI AROKO ETA ARO MODERNOKO ERAIKUNTZAK. IRTEERA DIDAKTIKOA.**

Lau jarduerak proposatzen ditugu eta unitate didaktikoan jarduerak hemen proposatzen dugun ordenan ez badaude ere, egokiena dela uste dugu, irteera didaktikoa egitea oinarritzeko baita gainerako jarduerak ariketa egiteko.

### **22-1.-\* IRTEERA DIDAKTIKOA.-**

**Maalako Errebaleko Okendo jauregitik** hasiko dugu. **Portaloitik** pasatu aurretik, gure eskumatara lehengo **San Frantzisko komentua** ikusiko dugu, gaur San Frantzisko eliza eta Udalaren Kulturategiaren zerbitzua dena eta Portaloiren ezkerrean aldean **Garibai etxean, egun**, Udaleko Gazte bulegoaren zerbitzuaren kokapena. Zekarkosteta kaletik aurrera joanez gero, eskumatara antzinako ate bat zegoen, bikoitza eta handik zuzen hiribildura pasatzeko aukera.

Portaloia pasatutakoan, hiribilduko kaleetatik barrena ibiliko gara, Erdi Aroko eta Aro Modernoko eraikuntzak ikusiko ditugu.

**Iturriotz kaletik** gora, udaletxea eta parroquia eskumaldean, **Iturriozko atea** ezkerrean, **Bañez de Artazubiaren** etxe ondoketik pasatuz, **Harresi aretoa** joango gara harresiaren



aztarnak ikustera. Kanean gora, **Goikobalurantz** (Santa Barbararantz) joango gara, gaztelua zegoen tokiraino **Gazteluondo zeharkatuz**.

Handik **Erdiko Kaletik** jaitsiz, **Parrokiaraino**, eta handik herriko plazara joango gara **Andikano Zelaaren etxea** ikusteko. **Olarte kantoitik** pasatuz, **Ferrerias kalerantz** abiatuko gara. Handik ezkerretara Zurgin kantoiren kalearekin topo egingo dugu. Hortik eskumaldean I **Monterron jauregia** ikusgai izango dugu eta **Zurgin kantoiko atetik** pasatutakoan, Monterron jauregiaren ondotik **Zarugalde errebalean** bukatuko dugu ibilbidea.

#### 1.- **OKENDO JAUREGIA( Maalako errebalean):**

Maalako errebalean dago, XVII. mendeko eraikuntza honek ere harlanduzko aurrealdea dauka. Herreriano barroko estiloko jauregi honek burdin sarez apaindutako balkoiak ditu eta Barrutia zein Zelaa leinuetako familia armarrria ere ikus daiteke.

Oraingo deituraren jatorri zuzena dator Ines Barrutia Zelaatik Domingo I. Okendorekin ezkondu zenetik. Okendo sendia Arlabango baserri batetik ei dator eta badirudi eraikin zahar hori 1590ean erosi zuela Andres de Oquendok. Okendo sendia lotuta dago Arrasate Bidekrutze baserrian jatorria zuen Mercado sendiarekin. Rodrigo Mercado de Zuazola oñatiarra izan zen Oñatiko Unibertsitatearen sortzailea. Arrasaten Mercado-Okendo jauregia Iturriotz kalean zegoen, Indianokua bezala ezaguna. XX. mendearen hasieran bertan Albina Madinabeitia bizi zen eta bertan ikasi zituen lehenengo mugimenduak biolinean. Garai hartan ere hemen taberna eta barrualdean trinketea izan zen eta II. Errepublika garaian herriko etxea izan zen bertan (alderdi sozialistaren eta UGTren egoitza).. Hemen planifikatu zituzten 1934ko urriaren 5eko iraultzaren nondik-norakoak.

#### 2.- **SAN FRANTZISKO KOMENTUA ETA ELIZA:**

Sorrera Joan Araoz Uriarte arrasatearrari esker izan zen. Mexikoko Zacatecasen aberastu ondoren, eta 1575ean eginiko testamenduak adierazten digun bezala, San Frantzisko eliza eraikitzea erabaki zuen.

1840ean, Mendizabalaren desamortizazioa eman zenean, frantziskotarrek alde egin zuten komentutik eta 1954ean etorri ziren berriro.

Lehen kapera XVI. mendean eraiki zuten, nahiz eta gaur egungo elizaren egitura XVII.



mendekoa izan; beraz, herrieranotzat jo daiteke. Frai Migel Aranburuk eginiko eraikuntza erlijioso horren aurrealdean, fundatzaileen armariak daude: Araoz eta Uriarterenak. Barrualdean, berriz, intxaur eta gaztaina egurrean eginiko "churrigueresco" estiloko erretaula dago, 1695. urtean Bergarako Jacobo Aiesta eta Rafael Larralde maisuek egindakoa. intxaurrezko eta gaztainezko egurrean . Egun, komentua, hainbat egokitze lanak egin ondoren Udalaren Kulturategi zerbitzuaren egoitza da eta bertan, kultura zerbitzu ugari emateaz gain, beste udal sail batzuen kokapena ere badago.

### 3.- PORTALOAIA:

Jatorrian, herriko alde zaharra harresituta zegoen eta Goikobaluko (Santa Barbarako) gaztelupean zegoen.

Hiribildura sartu aurretik **Portaloia** gunea dago, eta bere ezkerrealdean **Garibai etxea**. Lehen bere aldemenean **Biteri eskolak** izan ziren. Gunea honetatik, Beheko atea edo Portaloia ikusgai dago .

**Portaloia edo Beheko Portaloia**. Hiribilduko ate garrantzitsua, berez , Gazteluondoko arkuak da, 1768ko abuztuan egindakoa, baina hona pasatu zen, harriz harri desmuntatu zen eta hemen zegoena Gazteluondon jarri zuten. Maisu Arano eta Erdiko kaleen gurutzan

Hiru kalek osatzen dute hiribildua, hirurak maldan gora. Erdiko kalea dugu kale zuzen bakarra, beste biak Ferrerias eta Iturriotz, biribilduak dira, herriari obalo (almendra) itxura emanaz.

Arrasaten zeuden sei sarreretatik hiru bakarrik geratzen dira.

Lehen eta hiribilduarekin bat eginez, Mugaibeko dorre bezala ezagutzen zen XVIII.mendera arte **Gerra enea** eraikuntza zegoen.Olarte kokatuta egon zen, San Frantzisko elizaren bestaldean. Juan Karlos Gerraren oinetxea izan zen

### 4.- BAÑEZ ARTAZUBIAGA JAUREGIA:

XVI. mendean eraikia, Iturriotz kalean dago, Parrokiatik gertu. Oñatiko jaun gebaratarrren menpe ez egoteko, Bedoñan zuten dorretxea erre eta gero, hiribildura jaitzi zen Bañez Artazubiaga familia. Harlanduz eginiko jauregi horren aurrealdean



armarria ikusi genezake, gertatukoaren adierazgarri, ate gainean latinez idatzitako esaldiak, honela dio: "Gure leinuaren askatasunagatik errea." Atearen alde bakoitzean ere, beste latinezko inskripzioa agertzen da, hauxe da: "Solus labor parit virtuten, sola virtus parit honorem" (lanaren bitartez bertutea lortzen da eta bertutearekin ohorea).

Arrasate Pasealekuaren konfluentzian **Harresi aretoa** dago. Zabalik izanez gero, antzinako hiribilduaren harresia bertan ikus daiteke.

**5.- ITURRIOTZEKO ATEA:** Iturriotzeko atea. 1795ean berritua. Zerkaosteta kalean

**6.- GAZTELUONDOKO ERREBALA:** **Gazteluondoko atea**, egun, desagertuta  
Gazteluondoko eskola gunearen ondoan.

**7.- GOIKOBALU (GAZTELUAREN AZTARNAK):**

Antzinean, gaztelua bertan zegoen eta zimentazioen aztarnak daude. Gaur egun, parke bat dago eta bertan, herensugearen estatuta bat dago, hiribilduari begira. 1200 arte, Gaztela erresumak konkistatu arte, Leintz bailara osoa Nafarroako Atxorrotzeko tenentziaren barruan zegoen. Gaztelako Alfonso VIII erregeari entregaturiko ondasunen artean Rodrigo Jimenezek eskribienteak konkistatutako gazteluen zerrendan ez zuen aipatu Goikobaluko gotorlekua, Berriz, Nafarroako hainbat historiagileren iritziz Atxorrotz (Eskoriatzakoa) Goikobalukoa (Arrasatekoa) eta Elosuko (Bergara) gazteluak Nafarroako erresumaren defentsarako sarearen zatikoak zirela aipatzen dute.

Jose Letonak jaso zuen 1785an Udala Historia Akademiara zuzendu zitzaion idatzi bat non esaten zitzaion Arrasaten tradizioa zela 901.urtez geroztik Arrasate existitzen zela eta bere defentsarako Antso Abarkak (970-994), Iruñeko erresumaren erregea) agindu zuela gaztelu bat egitea eta baita harrusia ere.

Enrike IV. erregeak 1457an agindu zuen gaztelua botatzea, herritarren nahari kasu eginez gaztelu hartan gaizkileak eta tiranoak ezkutatu omen zirelako.

Garibaik(1533-1599) gazteluaren aztarnak ezagutu zituen. Historiagilearen arabera, gotorleku handia zen, harrizko mendi eder batean zegoen eta oso zaila zen haraino iristea. Berak ere Antso Abarkak egindakoa zela esaten zuen baina historia iturririk ez



omen daude horretaz.

Gaur egun dauden arrastoei eta tokiari Santa Barbara(Goikobalu) esaten diegu, 1635. urtean Barbara Abarrategikoak Goikobalun ermita bat eraiki zuelako. Santa Barbarari eskainita zegoen ermita.

Tolosako Batzarren dekretuak ermita botatzeko agindu zuen 1769an, baina herritarrek ez zuten gura izan eta 1771n Villafranca de Gaitango kondea alkate zela, bota barik itxi zuten. 1794an Konbentzio gerran artillero frantsesek eta gero Napoleonen artilleroek 1813an okupatu zuten eta betiko desagertu zen.

Bertan gazteluko dorreen oinarriak ikusi daitezke, 1994an aztarna horiek azalerratu baitzituzten. Egindako ikerketen arabera gazteluak lau dorre zirkular zeuzkan, bakoitzak 6 metroko diametroarekin eta dorre nagusi bat 30 metroko harresi laukizuzen batez babestuta.

#### **8.- SAN JUAN BATAIATZAILEAREN PARROKIA:**

Lehendabiziko erreferentzia 1318. urtekoa. Tenpluaren eraikuntza gotiko estilokoa-garaikoa-(XIII-XIV), baina kanpandorreko errematea klasikoa, pizkunde garaikoa (XVI. mendekoa).

Barnealdean altura bereko hiru nabe, koloma kalsikoak, gangak oso altuak, Berpizkunde garaiko erretebloa eta beste bat barrokoa, zurezko silleria bat aberez nahiz giza itxurazko aurpegi zenbaitez landurik eta beirateak. Kanpoaldean, hiru ateondo, kanpandorra bi ojibazko arkurekin eta teilatuko urak kanporatzeko, basurde, tximino, otso eta beste animalia batzuen itxura dituzten xurrutariak ageri dira elizaren perimetroan. 1990eko hamarkadan zaharberritu zuten parrokia.

Hiribildua jaio aurretik, gurtza antolatzeke eliza xume eta txikia zegoen, Santa Marinako basiliza, hain zuzen ere, izan zen Arrasateko lehendabiziko parrokia. 1768an bota zuten eta baserri bihurtu zuten ( Santa Marina baserria) eta 1967. urtean baserria bota zuten, toki hartan Mesedeetako Ama ikastetxea egiteko.

#### **9.- UDALETXEA:**

Herriko plazan dago. XVIII. mendekoa den eraikuntza barrokoa. Martin Karrera arkitekto zegamarraren lana da hau, 1756. urtean eraikitzen hasi eta 1766. urtean



bukatutakoa.

Barroko garaikoa. Ezaugarriak; Behe oina arkuduna, balkoi handiak, burdin sarez hornituta eta erdian herriko harmarria. Barnealdean, erdian kokaturik, eskailera bat, lehen mailan bi zatitan banatuta eta erdi patio barik.

Harlanduz eginiko eraikuntza honen behe oina 5 arkuk osatzen dute. Elorrioko Rafael Amezola artisauek egin zituen balkoien eta eskailerako burdinsareak. Udaletxearen erdialdean burdin sarez eginiko balkoi handi bat dago eta goragoa ongi zentratuta, frantses errokokoko estiloaren eragina duen herriko armarria dago.

Galarratik (Udalatxetik) ateratako harriaz eraikitakoa da baina moldurak egiteko harria Aguraingoa da.

#### **10.- ANDIKANO ZELAA ETA LOIOLA OÑAZ IRAZABAL JAUREGIA:**

Arrasateko erdialdeko plazan dago. XVII. mendekoa da eta herreriano estilokoa. Aurrealdean, erdi ezkutaturik, familien armarriak ageri dira. Baina sasi gotiko estiloan eraikitako zurezko galeria da eraikuntzaren elementurik ikusgarriena.

#### **11.- ZURGIN KANTOI:**

"Krimenaren kantoia", Monterron jauregiaren aurrean, bertan Monterroneko kondea Santiago Aranguren hil zutelako.

#### **12.- FERRERIAS KALEA:**

Arrasateko kalerik zaharrenetarikoa da Ferrerías kalea. Beheko Portaloian hasten da eta Gazteluondo alderaino iristen da. Egun, Beheko Portaloian dagoen arkua Gazteluondoko atean zegoena da.

Esteban Garibaikoa historiagileak jaso zuen oraingo Ferrerías kaleari garai hartan Arozkaletzen ziotela. (Errementarien kalea).

Kale honetan eta gaur, Olarte kale moduan ezagutzen dugun eremuan, Arrasateko altzairugintza, XVI. mendean, bere punturik gorenean zegoenean burdinola txiki, tiraderak, ugari zeuden. Garai horretan, 60 edo 70 izatera iritsi ziren. Tiraderak burdinola txikiak ziren, labe txiki bat zeukaten eta gurpil hidraulikoek mugitzen zuten hauspoez eta batzuetan eskuz eta beste batzuetan gurpil hidraulikoek mugiarazitako forjako mailu batez.





### 13.- ZURGIN KANTOIKO ATEA:

Hiribilduko aterik zaharrena da. Sarrera Olarte kaletik da eta hortik goruntza Zurgin kantoia.

Zurgin kantoiko atea edo "krimenaren kantoia".

### 14.- OLARTEKO ATEA (DESAGERTUTA):

Olarteko atea. Olarteko kalearen erdialdean, Olarteko kantoia intersekzioa zegoen. 1892an

bota zuten.

### 15.- MONTERRON EDO MONTARRON JAUREGIA:

XVII. mendeko eraikina dugu. Kubo itxura du eta herreriano estilokoa da. Apainduria gutxikoa da jauregiaren aurrealdean, bi armarri bakarrik agertzen baitira: Andikano Zelaa Arangurenena, alde batetik, eta Unzuetarena, bestetik. Horrez gain, kate batzuek mugatzen dute ate nagusiaren perimetroa, Felipe IV.ak jauregiari emandako immunitatea azpimarratzeko.

Garai hartan errege jauregia izatera pasatu zen eta haren jurisprudentziaren pean gelditu zen. Dena den, gaur ikusten diren kateak ez dira jatorrizkoak, XIX. mendean Eibarko miliziano batzuek kendu baitzituzten. Burdinaren presentziak garrantzi handia izan du Arrasateko artean, batez ere, forja lanetan. Monterronen burdinazko balastradak ikusi daitezke, baina forja lan horiek Arrasateko eraikuntza bat baino gehiagotan agertuko dira, eta herriko burdinolen kalitatea erakusten dute.

Monterrongo elementurik interesgarriena da jauregiaren lorategia. Espezie botaniko bitxi eta ugari dago, hala nola, 38 m-ko sequoia erraldoia.

### 16.- ZARUGALDE ERREBALA:

Jauregiaren ondotik Zarugalde errebala ikusten da eta bertan bukatutzat ematen da irteera didaktikoa.

**JARDUERA 1: Gorriz margotu, irakasleekin egin duzun ibilbidea.**

**JARDUERA 2: Ibilbide honetan ikusi duzun gauzarik politena edo interesgarriena margotu.**



## 22-2.- ERDI AROKO ERAIKUNTZAK.

Erdi Aroko herri hartatik hainbat eraikin ondo kontserbatu dira. Egindako irteeran eraikinok ikusi ditugu eta haietaz nahiko informazioa jasotzeko aukera izan duzue. Batetik, hainbat eraikinen argazkiak aurkeztu ditugu eta beste alde batetik, eraikin bakoitzarekin izenari buruzko informazio laburra.

Badakizu azalpen bakoitza zein argazkiri dagokion?

**JARDUERA 1: Zein dagokio zeini? Elkartu gezi baten bidez argazki bakoitzari dagokion izena eta azalpena.**

Erdi Arotik edo Aro modernotik hona eraikuntza hauek eraldaketa eta berrikuntza ugari izan dituzte eta kasu batzuetan ez dira izan orain guk ezagutzen ditugun bezalakoak. Hori guztia ikuskatzeko, egokia iruditu zaigu udaletxearen bi argazki dituzte koadernoan. Denboran izandako aldaketak aurkitzeko eskatuko diegu.

**JARDUERA 2: Zein elementu aldatu dituzte? Biribildu eta idatzi behean.**

*Koadernoko 21. orrialdea.*

## 22-3.-NOLAKOAK DIRA GAUR EGUN?

Erdi Arotik gaur arte iraun duten eraikuntzekin jarraituz, hiru eraikinen argazkiak agertzen dira.

Orain arte handik eta hemendik informazio orokorra jasotzen aritu dira. Oraingoan gure ikasleei ikertzaile izateko proposatuko diegu. Nahi duten eraikuntza, edo atentzioa gehien eman dien eraikuntza aukeratu eta hari buruzko informazioa bildu eta koadernoan jasotzeko eskatuko diegu.

Gura izanez gero, eraikuntza bakoitzaren aurkezpena antolatu dezakegu, bakoitzak aukeratu duen eraikuntzaz bildu duen informazioa taldeari eskaintzeko.

**JARDUERA 1: Hiru horietatik bat aukeratu eta bildu ahal duzun informazio guztia. IZENA.**

**JARDUERA 2: Hauetariko eraikinaren gaur egungo argazkia edo argazki makinarik ez badute, marrazkia bertan jarri dezakezu.**

*Koadernoko 22.orrialdean.*



#### 22-4.- DAGOENEO EZ DAUDEN ERAIKUNTZAK

Antzinako eraikin ugari galdu diren arren, hiru esanguratsu aipatu ditugu unitate didaktikoan: Ferrerias kaleko Ozteko etxea, Goikobaluko Gaztelua (Santa Barbara) eta Ferrerias kaleko Gerra jauregiarena.

Galdutako eraikin horien kokalekua ezagutzen dugunez, proposatu diezaiekegu ikasleei lehen zeuden tokietan gaur zer dagoen ikertzea eta marrazkiaren behealdean jartzea. Ariketa hau egiteko egingo dugun irteera didaktikoaz baliatuko gara toki horietatik pasatzen garenean ohartarazteko.

Irudimenari aukera emango diogu eta bakoitzak barruan duen gaztelua margotu dezala, baina ondo legoke lana hasi baino lehen azaltzea ikasleei toki altuan dagoela (Goikobalu) eta esatea argazkian antzinako kokapena dutela.

**JARDUERA. 1: Irudikatu eta marraztu zure gaztelua Goikobalun (Santa Barbaran).**

*Koadernoko 23. orrialdea.*

#### 23.- LEHENGO ETA ORAINGO LANBIDEAK

Herria harresitua eta hiribildua sortu zutenean, biztanleak, batik bat, bi multzotan zatituta geratu ziren. Hiribilduan zeudenak eta landan bizi zirenak. Bi biztanle multzoen arteko bizimodua desberdina zen, dudarik gabe. Horrek ere isla izan zuen bi multzoek zituzten lanbideetan.

1.- Hiribilduan bizi zirenak: eskulanean aritzen ziren batzuk, zapatariak, jostunak, ehuleak, eltzegileak, zurginak, arotzak, abarkagileak, aitzogileak. Ferrerias kalean tiraderak zeuden neurrian, bertan, tenazeroak eta olagizon/andreak zeuden.

Hiribilduko jauntxoak, berriz, eskribau, abokatu, prokuradore eta notario aritzen ziren. Ardura burokratiko –administratiboak eta politikoak– hartuak zituzten. Parrokia hiribilduaren barruan zegoenez, eliz gizonak eta apaizak zeuden bertan.

Erdi Aroan ez ziren sekula nekazaritzako jardunbideak galdu hirigune txikietatik. Beraz, hiribilduko etxeek bazituzten baratza txikiak eta abereak etxeko premiak asetzeko.

2.- Landan bizi zirenak: Nekazariak eta abeltzainak ziren gehienak. Mirua, oloa eta sagardoa ziren nekazaritzako produktu nagusienak, eta txerri, ardi, ahuntz, ahari eta behiekin batera abeltzaintzakoak.

Beste batzuk oletan lan egiten zuten. Langile horiek olagizonak, olandreak, ikazkinak, arotzak eta olak ikatzez eta meaz hornitzen zituzten merkatariak ziren. Olak metalgintzaren hastapenak izan ziren, bailarako jardunbide ekonomikoa bultzatu zutenak, eta bertako biztanleak aberastu zituztenak. Hortik sortu ziren olajaunak eta olandreak.



Koadernoan bi multzo eskaintzen ditugu, baina aurkezten ditugun lanbide guztiak ez daude ongi kokatuta; zenbait lanbide ez dagozkio multzoari. Kontua, orduko lanbideak aurkeztu ondoren, ikasleek gaizki kokatutako lanbideak aurkeztea izango da.

**JARDUERA 1: Zenbait lanbide ez daude ondo kokaturik. Ea aurkitzen dituzun.**

Garai hartako lanbideak gure egunetara arte iritsi dira. Garaiei egokituak, hori bai. Beste zenbait, aldiz, galdu egin dira. Ideia horretatik abiatuta hausnarketa bat egin dezakegu gaur egungo lanbideei buruz. Zerrenda bat osatu dezakegu aipatzen dituztenekin, nahi izanez gero sektoreka sailkaturik. Ondorioak atera ditzakegu ondoren: ea Erdi Aroan gertatzen zen gisan, gaur egun ere bizilekuak eragina duen lanbideetan edo ez.

**JARDUERA 2: Hainbat lanbide gaur egun arte iritsi dira, beste batzuk, ordea, galdu egin ziren.**

**Zein lanbide daude gaur herrian?**

Gero, ikasle bakoitza bere errealitate hurbilera gerturatzen saiatuko gara. Horretarako, bi galdera aurkeztuko dizkiogu.

JARDUERA 3: Zure gurasoek zein lanbide dute?

JARDUERA 4: Zuk horietariko bat aukeratuko zenuke lan egiteko? Horietariko bat ez bada, zein lan aukeratu nahi izango zenuke?

*Koadernoko 24. orrialdean.*

## **24.- ALTXORRAREKIN TRILL EGIN.-**

Altxorrak, ipuinetan irakurri dugun bezala ez dira beti bitxiak, dirua, gauza materialak, baliotsuak.. izaten, baizik eta, zentzu emozionalean pertsonentzat ere baliotsuak direnak aurrera egiteko.

Altxor bat herriaren mutur batean kokatu dugu eta unitate didaktikoaren edukiari erreparatuta, errementariak jarri ditugu altxor horren eramaile eta ezkutatzaile. Leintz bailara bukatzen den tokia da Urbitarte (Deba eta Oñati errekek batzen diren tokia da, Bergarako Elorregi (San Prudentzio) auzoaren ondoan dago, baina erreken arteko lur eremu hori Arrasate da.

San Juanetan plazan tente jartzen diren makalak hemendik ekartzen dituzte eta herriko gazteek zutik jartzen duten herriko plazan jaiari hasiera emateko. Makal horietan, errebindikazio leloak eta herrikoiak jartzen dituzten gazteek, eta jaiak bukatu bitartean plazan diraute denon begien bistan.



Altxorra dagoen tokiaren izena jakiteko, lehenik mezu sekretua deskodetu beharko dute. Horretarako, osatu eta koloreztatuta dauden ikurrak elkarren ondoan ipiniz tokiaren izena izango dute eta laguntza moduan, behealdean jarri dugu izenaren zati bat bokalik gabe: **URBITARTE**.

Goiko irudian ikusten dugun bezala, Antsa eta Martin Urbitarteko kutxan ezkutarik zegoen altxorra hartzera, baina altxorra ez zuten haientzat gorde eta herrira ekarri zuten toki altu batean jartzeko, errebindikazio gisa, ikusgai egoteko jaietan eta denon bihotzetan urteko gainerako egunetan.

**“Izan ginen, gara eta izango gara euskaldunak”**

**JARDUERA 1:-Aspaldi aspaldi errementariak altxorra ezkutatu zuten Arrasateko toki batean. Ea topatzen duzun**

**JARDUERA 2:- Mezu sekretua! Kolorez dauden letrak elkartuz gero, jakingo duzu altxorra non dagoen.**

**JARDUERA 3:- Saiatu zaitez kutxaren barruan dagoen mezua argitzen, alderantziz irakurrita testua.**

**JARDUERA 4: Antsa(Santxa) eta Martinek aurkitutako altxorra herrira ekarri zuten. Ba al dakizu non utzi zuten?**

*Koadernoko 25.orrialdea*

## **25.- ATZERA BEGIRA.-**

Heldu gara 2. unirateko amaierara. Aukera egokia ikasi dugunaren gainean hausnartzeko.

**JARDUERA 1: Markatu esandakoak, egia edo gezurra diren?**

**JARDUERA 2: Ezagutuko al zenituzke eraikuntza hauek?**

*Koadernoko 26.orrialdean.*



## MATERIAL OSAGARRIA

### 1.- HERRIA ERAIKITZEN

Jarduera hau egiteko, komenigarria da 8.g. jarduera egina izatea. Jarduera horretan eskaintzen den mapa Erdi Aroko herriari dagokio.

**JARDUERA:** *Taldeka, garai hartako kaleak gaurko eguneko mapan aurkitzen ahalegindu gintezke eta, azkenik, gaurko eguneko mapan Erdi Aroko mapa markatu genezake. Horrek, ikasleei, ikusten lagunduko die Erdi Aroko herriak gaurko eguneko herriaren barruan dirauela. Gutxi gorabehera egungo mapan kokatzen dutenean, Erdi Aroko mapako kalei izenak jartzeko eskatuko diegu. Baina lehengo kale horiek bere horretan ote dauden oraindik? Ea aurkitzen dituzten aldeak!*

### Bibliografia

JOSE ANGEL ACHON: "La voz de concejo", Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995-

JOSE ANTONIO AZPIAZU: "El acero de Mondragón" en la época de Garibay", Arrasateko Udala, 1999.

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: "Arrasate gure herria", Arrasateko Udala, 1993.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "Maalako errebala", Arrasateko udala, 2000.

JOSE LETONA.- "Mondragón y sus calles". Gipuzkoako Aurrezki kutxa. 1984. urtea. Jose Letonaren artxibategia.

TOMAS URZAINQUI eta JM OLAIZOLA. "La Navarra marítima". Pamiela argiteletxea. 1999. URTEA

ANA ISABEL UGALDE. 2010. urtean emandako hitzaldiak.

JOSE LUIS URANGAREN ARTXIBATEGIA.

JOSE LETONAREN ARTXIBATEGIA

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA.

NABARRALDE.

[www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com).

Serapio Mugica Zufiriaren artikuluxkak.

JOSE LUIS ORELLA UNZUE. "Territorio y sociedad en la Guipuzkoa Medieval. Los parientes mayores."

JOSÉ ANGEL LEMA PUEYO. Euskonews-etik ekarrita

IÑAKI SAGREDO.- "Navarra, Castillos que defendieron el Reino. La Navarra Occidental, la frontera del mar. Alava, Bizkaia el Duranguesako y Gipuzkoa" E. Pamiela.

SUDC ELKARTEA. "Doke jokuaren arauak"

MANUEL LEKUONA.- "Mondrago sutan" izeneko hitzaldia. 1960. urtea

### ERAIKUNTZA HISTORIKOAK.

[WWW.Arrasate.eus](http://WWW.Arrasate.eus).

\*Hik Hasi aldizkaria. "Herria ezagutzen" "Itsas bazterrean" izeneko unitate didaktikoa eta gida pedagogikoa.

\*Mondraberrri egunkari digitala. [www.mondraberrri.com](http://www.mondraberrri.com).

Etxaide "Goroto lege"

Diario Vasco. Kepa Oliden.- "San Balerion aurkitutako erromatar inskripzioa"



